

Programazioaren aurkibidea

1. Sarrera

2. Metodologia

- Egitean oinarritutako metodoa
- Nola jokatu behar dute ikasleak eta irakasleak klasean?
- Testuak
- Komunikazio-estrategiak
- Nork bere kontura ikastea eta ikasteko estrategiak
- Nola zuzendu akatsak?

3. Helburuak eta edukiak

• Tarteko Maila : 1. Urratsa

- Helburuak
 - Zeintzuk dira Tarteko Maila 1eko helburu orokorrak?
 - Zer jarduera komunikatibo burutzen dira?
- Edukiak
 - Zer funtzio ikasi behar dira?
 - Nolako testuak irakurtzen dira?
 - Nolako testuak entzuten dira?
 - Nolako testuak ekoizten dira?
 - Zer gai jorratzen dira?
 - Zer gaitasun behar dira jarduera-komunikatiboak egiteko?
 - Zer estrategia erabiltzen da jarduera komunikatiboak burutzeko?

✚ Tarteko Maila : 2. Urratsa

- Helburuak
 - Zeintzuk dira Tarteko Maila 2ko helburu orokorrak?
 - Zer jarduera komunikatibo burutzen dira?
- Edukiak
 - Zer funtzio ikasi behar dira?
 - Nolako testuak irakurtzen dira?
 - Nolako testuak entzuten dira?
 - Nolako testuak ekoizten dira?
 - Zer gai jorratzen dira?
 - Zer gaitasun garatu behar dira jarduera-komunikatiboak egiteko?
 - Zer estrategia erabiltzen da jarduera komunikatiboak burutzeko?

4. Ebaluazioa eta ziurtagiria

- Sarrera
- Trebetasun bakoitza neurtzeko irizpide espezifikokoak
- Azken probak
- Proba-ereduak
- Auto-ubikazio proba

5. Dibertsitatea kontuan hartzeko neurriak

-

6. Beste jarduera batzuk

-

-


7. Zalantzak argitzeko


Euskarako programazioa.


1. SARRERA

Honako programazio hau EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialen Oinarrizko Mailako eta Tarteko Mailako curriculumean oinarrituta dago eta aldi berean jaso egiten ditu Erreferentzi Marko Europar Bateratuaren ekarpenak eta bere egiten du ikasketaren ikuspegi komunikatiboa. Programazio honi esker ikaslearengan eta beronek ikasteko eta komunikatzeko dituen beharretan zentratzen diren eskolen planifikazioa ahalbidetzen/errazten da.

Ikasle ofizialek matrikulatuta dauden mailako azterketa egingo dute. Maila batetik bestera pasatzeko ezinbestekoa izango dute azterketa gainditzea. Behin A2ri dagokion azterketa gaindituta **Oinarrizko Mailako Agiria** jasoko dute eta B1.2ri dagokiona gainditzean **Tarteko Mailako Agiria** jasoko dute.

- Oinarrizko Maila 
 - 1. Urratsa (A1)
 - 2. Urratsa (A2) (A2 EMEB*) Agiria

- Tarteko Maila 
 - 1. Urratsa (B1.1)
 - 2. Urratsa (B1.2) (B1 EMEB*) Agiria

- Goiko Maila 
 - 1. Urratsa (B2.1)
 - 2. Urratsa (B2.2) (B2 EMEB*) Agiria

*EMEB: Erreferentzi Marko Europar Bateratua.

2. METODOLOGIA

Egitean oinarritutako metodoa

Ikasleak arrazoi eta beharrian ezberdinak direla eta matrikulatzen dira HEn. Dena dela, gehienek ikasteko aukeratutako hizkuntza hori erabili egin nahi dute eta berorrek komunikatzea dute helburu. Ikaskuntzaren teoriak eta ikasgelako praktikek diotenez, eginez ikasten da ondoen. Honek esan nahi du hizkuntza bat ikasteko entzun, irakurri eta idatzi egin behar dela. Hau da, hizkuntzak eginez ikasten dira.

Kontua ez da hizkuntzaren inguruko edukiak azaldu eta ikastea, berori (egiturak, lexikoa...) erabiltzea baino. Hizkuntzaren erabilera bultzatu gura da: erregistroa eta gorputz adierazpena bezalako gaitasun pragmatikoak kontuan hartu testuinguru jakin batean, asmo ezagun batekin eta berbalagunarekin. Metodo honen ondorioz ikasleak ikasgelako zereginak, ikasten ari den hizkuntzan, bideratzeko aukera izango du.

Gai bat hartuta, berorren inguruko gizarte eta kultura ezaguerarekin batera komunikazio-estrategiak, lexikoa eta egitura gramatikalak lantzen dituzten jarduerak prestatzen dira.

Esate baterako:

Unitate didaktiko baten gaia "Janaria" bada, xede hizkuntzako herrialdeko errezetak (interneten esaterako) irakurri hiztegia ikasten da. Jarduera hori hobeto lantzeko aurretiaz ama hizkuntzan dauden mota horretako testuen ezaugarrien berri izaten da (estrategia).

Hiztegi hau buruz ikasten da eta erabili egiten du bakoitzak bere errezetetan, sukaldaritzazaleen fororen batean argitaratzeko.

Jaioterriko supermerkatuetako prezioak herrialde berrian daudenekin alderatzen dira (interneteko web orri batean sartuta). Honela, testuinguru horretan konparazioaren egitura gramatikalak aztertuta, praktikatu eta ikasi egiten dira, behar direnean erabili ahal izateko.

Nola jokatu behar dute ikasleak eta irakasleak klasean?

Honelako atazak erabiliz gero, ikaslea bera izango da ikasgelako protagonista nagusia. Ikasleak berak hartzen du parte: beste batzuekin batera hitz egiten du, irakurri egiten du, entzun eta idatzi egiten du. Hau da, ikaskuntza –prozesuaren oinarritzeko pieza da.

Irakasleak, prozesu horren moderatzailea eta tutorea denez, bideak erraztu egin behar ditu. Oso garrantzitsua da irakasleak ikaslearen motibazioa piztea. Era berean, ikasgelan ikaslea ikasten ari den hizkuntzan jardutea bultzatu behar du. Horretarako ezinbestekoa da ikasgela leku atsegina izatea ikaslearen eginbeharretarako.

Honekin batera, ikaslea klasean parte hartzeko prest egotea eta gainerako ikaskuntza-prozesuan gogotsu aritzea guztiz beharrezkoa da.

Ikasleak bere interesak eta galderak azaltzen baditu, irakaslea kontuan izaten ahaleginduko da eta horrekin lotutako plangintza bideratuko du.

Testuak

Gelan benetako komunikazioa sortuko bada xede-hizkuntzan (adibidez, zelan ikasten den pentsatuz edo gairen bati buruzko iritziak emanez edo arazoren bat konpontzeko informazioa bilduz edo eskolako zuzendaritzakoei proposamenen bat idatziz...), argi dago bertan irakurri, entzun edo egiten diren testuek **benetakoak** izan behar dutena (Oinarritzko Mailan ez oso erraztuak), horietatik izango direlako gelan egongo den benetako bizimoduaren isla.

Komunikazio-estrategiak

Irakurri, entzun, berba egin eta idazteko, edo komunikatu eta bitarteko egiteko hiztegia eta egiturak erabiltzen dira, baina horrezaz gainera **komunikazio-estrategiak** ere erabiltzen dira

ondo eta argi komunikatzeko. Ama-hizkuntzan ia beti konturatu barik erabiltzen dira estrategiak, beraz, xede-hizkuntzan ere bultzatu egin behar dira.

Adibidez:

- Egunkaria irakurtzean, titularrak irakurrita eta argazkiak ikusita jakin daiteke zer dioen artikulua. Dena ez da zehatz-mehatz irakurtzen, batzuetan gainera eta beste batzuetan zerbaiten bila baino. Egunkaria edo web orriren bat beste hizkuntza baten irakurtzen denean ere ez da hitzez hitz ulertu behar, estrategia bera erabili behar da.
- Tabernan, esaterako, ondokoak dioen guztia ulertu ez arren, arazo barik egin daiteke berba testuingurua ulertzen delako eta mimika eta keinuak egiten direlako. Xede-hizkuntzan ere baloratu egiten da teknika hau.
- Berba egitean, askotan esamoldeak esaten dira berbetan hasteko edo zerbait azaldu nahi denean zelan deitzen den burura etorri ez eta esan ahal izateko. Xede-hizkuntzan ere horrelako esamoldeak erabilia hobeto komunikatzen da eta elkarrizketari berba-etorri handiagoa ematen zaio.

Norberarena ez den hizkuntzan ere erabili eta bultzatu egin behar dira horrelako estrategiak, baina jakinda horrek ikasten laguntzen duela (ikus OM eta TM: Zein estrategia erabiltzen dira komunikazio-jarduerak burutzeko?)

Nork bere kontura ikatea eta ikasteko estrategiak

Hizkuntza bat ikatea aberasgarria da, baina denbora behar da; gainera ikasle bakoitzak bere esperientziak eta bere gaitasunak dauzka eta hortik hasten da beste gaitasun batzuk hartzen eta aberasten. Ikasle guztiak ez dira maila berean hasten eta bakoitzak bere erritmoan ikasten du. Hori dela eta, oso garrantzitsua da ikasleak **jakitea berak zelan ikasten duen** eta **zer egin behar duen ikasteko**, irakasleari eta klaseei hainbesteko garrantzia eman barik.

Ikaslea konturatzen bada zein gaitasun eta zein gabezia dauzkan, eta **zelan ikasi ikasten badu, autonomoagoa** izango da eta hori Hizkuntza Eskolen kasuan derrigorrezkoa da gelan bertan ematen diren klase-orduak ez direlako nahikoa maila horretako helburuak lortzeko.

Ikasteko estrategiak edukitzea ezinbestekoa da eta, beraz, klaseko jardueretako bat da.

Nola zuzendu akatsak?

Ikasleak, txarto esan arren, zerbait komunikatu nahi duen seinale dira akatsak. Jardunez ikasten da, beraz **derrigorrez egin behar dira hutsak**. Horiek zuzentzean ikasten da ondo egiten.

Garrantzi handikoa da klasean ikasleari auto-zuzentzen laguntzea, batez ere komunikazioa oztopatzen duten akatsak zuzentzen.

3. HELBURUAK ETA EDUKIAK MAILAKA

TARTEKO MAILA 1

HELBURUAK

Zeintzuk dira lehenengo urratseko helburu orokorrak?

Tarteko mailako lehenengo urratsean ikasleak ondoko hauek ikasiko ditu:

- Xede-hizkuntza erabiltzen aurkituko dituen ia egoera guztietan, bai eskola-mailan, bai lanean edo aisialdian.
- Ulertzen, elkarreragiten, bitartekaritza ezartzen eta bere burua azaltzen aurrean aipatutako egoeretan, formaltasun edo informaltasun erregistro estandarrean, hitz eginez zein idatziz.
- Komunikazioa eta ikasketa erraztu eta arinduko duten estrategiak erabiltzen.
- Nork bere ikasketa prozesua eta hizkuntzaren erabilpena hobetzeko eta ebaluatzeko tresnak erabiltzen.

Zer jarduera komunikatibo burutzen dira?

Egoera arruntetan eta gai orokorrean buruz hitz egiteko jarduerak. Hiztegia xumea baina zabala izango da eta testuek oinarritzko antolaketa izango dute eta kohesio aldetik nahikoa malguak izango dira.

- Gai ezagunei buruzko elkarrizketa informalei ekin. Era askotako gaiak jorratuko dira (esaterako: familia, zaletasunak, lana, bidaiak, gaur eguneko gaiak) Informazioa elkarri emango diote iritziak, zurrabideak eta erreakzioak adieraziz.
- Iritzi, zalantza, akordio edo desakordio, baldintzak eta arazoaren soluzioak edo edozer egiteak dakarren erreakzioak adierazterakoan bere burua argi azaldu.
- Dendetan, bidaietan, postetxean, banketxeetan... gerta daitezkeen eta hain egunerokoak ez diren egoerei aurre egin.
- Erreklamazio bat egin edo kexa adierazi.
- Informazio xume eta zehatza errepikatu eta igorri, beti ere komunikazio egoera aintzat hartuz.
- Pertsona, objektu, jarduera, zerbitzu eta lekuak deskribatu.
- Gertaerak, bizi izandako esperientziak eta etorkizuneko proiektuak kontatu sekuentzia linealari jarraituz.
- Aldez aurretik prestatutako aurkezpen eta hitzaldiak burutu eta gaiari dagozkien galderari erantzun.

Idazteko jarduerak testu xume, egoki eta koherenteak sortzeko. Gaiak ezagunak izango dira eta idatzizko adierazpideen konbentzioak errespetatuko dira. Hiztegia xumea, baina zabala izango da eta testuek oinarritzko antolaketa izango dute eta kohesio aldetik oinarritzkoak, baina eraginkorrak izango dira.

- Galdetegi erantzun eta gai ezagunei buruzko eskemak burutu.
- Oharrak, postalak eta gutun pertsonalak idatzi hartzaile jakinei zorionak emateko, barkamena eskatzeko eta esperientziak sentipenak eta gertaerak deskribatzeko.
- Emandako eredu bati jarraituz gutun formalak idatzi.

- Hizkuntza lkasten ari diren beste ikasle batzuekin edo interes berak dituzten beste pertsona batzuekin komunikatu internetez, faxez edo posta arruntaz.
- Narrazio eta esposizio xume eta laburrak, baina ondo egituratutakoak egin.
- Nork bere inguruko zertzeladak deskribatu eta komentatu (jendea, lekuak, ikasketak, ...)
- Txosten arrunt eta laburrak prestatu.

Entzundako diskurtso eta mezu argiak ulertzeko jarduerak; aipatutako testuak hizkuntza estandarrean osaturik egongo dira eta lana, ikasketa eta aisialdiko eguneroko gai buruzkoak izango dira. Honako jarduera hauetan gerta liteke atalen bat errepikatu behar izatea.

- Berari hitz egiten diotenean aditu eta bere inguruan gertatzen diren elkarrizketa informal eta formalak ulertu. Elkarrizketa hauetan gai orokorrak eta bere espezialitatekoak jorratuko dira, beti ere argi ahoskatuak izango dira eta gerta litezkeen informazio-hutsuneak kontrolatu ahal izango ditu.
- Informazio xumea eskatu eta eguneroko tratuak kudeatu. Instrukzio zehatzei jarraitu
- Kontakizunak ulertu argumentazioaren haria eta pasarterik esanguratsuenak jasoz.
- Gai ezagunei buruzko eta hizkuntza estandarrean argi ahoskatuak mintzaldi laburren ideia nagusiak eta orokorrak harrapatu.
- Gai ezagunei buruzko mintzaldi xume baten punturik garrantzitsuenei buruzko oharrak hartu.
- Informazio tekniko errazak ulertu irudien laguntzaz; esaterako: edozein tresnaren erabilerarenak edo muntaketarenak.
- Irargarkien edukia jaso, irudiak lagunduta.
- Gai ezagunei buruz (informatiboak, erreportajeak, filmak, film laburrak) diharduten telebistako saioak ulertu.

Irakurritakoak ulertzeko jarduerak; testuak benetakoak izango dira, errazak eta testuinguru baten baitan agertuko dira eta eguneroko gai arruntei buruzkoak izango dira.

- Normalean produzitzen diren gutun pertsonal eta formalak (informazioa edo azalpenak eman eta eskatu, eskertu, exijitu, jaso izana adierazi...) eskatu, eta mezuak, e-mailak, SMSak ulertu, komunikazio asmoa aintzat hartuz.
- Gertaera, sentipen eta gurariaren deskribapena ulertu adiskideei gutunak idatzi eta eurenak jaso ahal izateko erregulartasunez.
- Jatorrizko testu ez oso zailak irakurri. Honako testu hauek ikaslearen esperientzia munduarekin erlazionatuta egongo dira modu global eta espezifikoa eta ondo samar ulertuko dira.
- Informazio zehatza bilatu testu luzeetan eta iturri desberdinetatik datozkeen informazioak batu ataza jakin bat burutzeko.
- Informazio zehatza bilatu eta topatu interneten, alde zuzenetik emandako helbide eta web orrietatik abiatuta.
- Albiste edo egunkari artikulua erraz eta gai orokor eta ezagunei buruzkoen punturik esanguratsuenak asmatu.
- Diskurtso baten argudiozko egitura ezagutu.
- Argudiozko testu baten ondorioak identifikatu.
- Nonbaitera joateko, ariketa fisikoa egiteko, errezeta bat prestatzeko, jolas bat egiteko. tresna bat erabiltzeko zerbitzuren bat lortzeko behar diren jarraibideak bete.
- Argi idatzitako arauak ulertu (segurtasunari buruzko arauak, klaseko portaera eta ardurei buruzko arauak, bidaietarako aholkuak etab.)

EDUKIAK

Zer funtzio ikasi behar dira?

Hizkuntzaren gizarte erabilerak

- Agurrak egin, nork bere burua aurkeztu, besteak aurkeztu, lagun edo ezezagun bati berba egin, baimena eskatu, barkamena eskatu, eskertu, zoriondu eta beste baten arreta erakarri.
- Beste pertsona batzuekiko interesa erakutsi, ohiko esamoldez egindako informazioari erantzun egokia eman.
- Beste erabilera batzuk: opariak egin, gonbidapenak egin, ongi etorria eman, gertaera jakin batzuetarako egoten diren asmo eta sentimendu onak adierazi.
- Adostasuna, desadostasuna, probabilitatea, beharrezana, ziurtasuna, eginbeharra, gaitasuna, asmoa, lehenetasuna, gustuak eta oroitzapenak adierazi.
- Aurreko ekintzei buruz galderak egin.
- Laguntza eskatu eta eskaini, gonbidapenari baietza edo ezetza eman, iradoki, proposamena onartu edo baztertu eta baimena eman eta eskatu.

Komunikazioaren kontrola

- Laguntza eskatu: ez dela ulertzen jakinarazi. Errepikatzeko, berba astiroago egiteko, argitzeko, edo letraka esateko eskatu. Ulertzen ez diren hitz edo esamoldeen inguruko galderak egin.
- Zerbait egiaztatu, norbere burua zuzendu, parafraseatu, argibideak eskatu edo mintzaldia ulertzen dela adierazi.
- Ulertu ez duen kideari azalpenak eman edo itzulpena egin.
- Ondo aditu den galdetu.

Informazio orokorra:

- Pertsonen buruz informazioa eman eta eskatu: adina, izen-abizenak, egoera zibila, herritartasuna, lanbidea, telefonoa, helbidea, posta elektronikoa, trebetasunak, gustuak eta zaletasunak.
- Ordutegi, prezio, janari, data, toki (eskola, bizi-lekua), kopuru, gauza edo jardueren inguruan informazioa eskatu eta eman.
- Gauzak, pertsonak eta lekuak identifikatu.
- Norena den galdetu edo esan.
- Pertsonen itxura eta izaera deskribatu.
- Gertaera bat non edo noiz jazoko den adierazi.
- Ohiko jardueren edo unean unekoez aritu.
- Gertatutakoaz jardun.
- Aurretik jazotakoa eta orain gertatzen dena lotu.
- Proiektuen eta asmoen inguruan aritu.
- Pertsonak, gauzak (arropak, altzariak, eraikuntzak eta barruko aldeak), egoerak eta jarduerak deskribatu.
- Eguraldiari buruz hitz egin.
- Espazioan (gelan, etxean, hirian) bilatu eta kokatu.
- Zerbait edo norbait urrun edo hurbil dagoen adierazi.
- Imajinatutako edo jazotako gertaera bat kontatu edo berorri buruz galderak egin.
- Norbere burua zuzendu, zalantzan egin.
- Gertatuko denaren edo litekeenaren inguruan berba egin.
- Azalpenetan enumerazioak egin.
- Informazioa igorri eta errepikatu.
- Informazioko atalak lotu (zergatia, ondorioa, baldintzak).
- Laburpena egin (pelikula, liburua...).
- Berbak eta esamoldeak definitu.
- Gertaera bat ezagutzen den ala ez adierazi.
- Iragarpenak egin.
- Denboraren hurrenkera adierazi.

- Informazioa eman.

Iritziak eta balioespenak

- Galdetu ezagutzen den ala ez eta ezagutza edo ezjakintasuna adierazi.
- Ekintzak, egoerak, lekuak, pertsonak eta objektuak alderatu.
- Zalantza adierazi.
- Adostasuna eta desadostasuna erakutsi.
- Ideia edo proposamen baten alde edo aurka agertu.
- Interesak, gustuak... adierazi eta euren inguruko galderak egin.
- Jarduera edo iritzi bat justifikatu.
- Zergatiak, helburuak eta ondorioak azaldu.
- Zerbait egiteko baldintzak adierazi.
- Gertaera baten balorazioa (erraza, litekeena) egin.

Osasun egoera, sentsazioak eta sentimenduak

- Gorputzeko sentsazioen berri eman edo eskatu: hotza, beroa, logura, gosea, egarria, ondoizatea edo ondoeza.
- Onera edo okerrera egin duen adierazi.
- Gogo aldaratearen berri eman eta zergatiak adierazi: aspertuta edo gogotsu egotea, interesatuta, pozik, txundituta... Aldarte horren inguruko informazioa eskatu.
- Sentimenduak adierazi: poza, pena, ardura, beldurra.
- Besteen sentimenduen aurrean modu egokian jokatu.

Eskaerak, argibideak eta iradokizunak

- Zerbitzuak eta gauzak eskatu, eskaini, onartu edo ezetza eman.
- Agindu eta aholkuak eman eta eskatu.
- Zerbait egiteko baimen eskaera egin eta horri baietza edo ezetza eman.
- Laguntza eskaini eta eskatu eta horri baietza edo ezetza eman.
- Gonbidapena egin eta zerbait eskaini eta horri baietza edo ezetza eman.
- Zerbait egiten bultzatu.
- Argibideak (helbideak, nola heldu) eman eta eskatu.
- Laguntza eskatu.
- Zerbait egiteko asmoa, borondatea edo erabakiari buruz informazioa eman eta eskatu.
- Komunikazio egoeran bertan eskaera bat egin.
- Zerbait egiteko aukera, ezintasuna edo eginbeharra adierazi.
- Debekuak adierazi.
- Jarduerak proposatu eta beste proposamen batzuei erantzun.
- Zita bat hitzartu, beste batekin geratu.
- Telefonoz hitz egin (berbetan hasi, norbait telefonoan jar daitekeen argitu, itzaroteko eskatu, entzuten den edo ulertzen den egiaztatu, agurtu...).

Diskurtsoaren antolamendua

- Norbaiti hitz egin.
- Diskurtsoa hasi eta amaitu.
- Gaia sartu.
- Elkarrizketa edo debate bat antolatu: iritzia eman, adibideak jarri, norbere burua zuzendu, zalantzak adierazi eta laburpena egin.
- Elkarrizketan parte hartu: iritzia eskatu.
- Elkarrizketan erantzuna eman: diskurtso baten ildotik doala erakutsi.
- Diskurtsoaren zatiak lotu.
- Diskurtsoa kohesionatu: denbora koherentzia zaindu, ildo jarraitu alferreko errepikapenik egin barik..
- Telefonoz berba egin: erantzun, norbait telefonoan jar daitekeen argitu, itzaroteko eskatu, entzuten den galdetu.
- Eskutizetan eta mezuetan dagokien formalitatea erabili.
- Testu bakoitzean ohiko arauak eta ezaugarriak erabili.

Nolako testuak irakurtzen dira?

Atazak egitean, testuak helburu zehatzak lortzeko irakurtzen dira.

- Izaera sozial edo pertsonala duten mezuak (SMSak, posta elektronikoa, gutunak, oharrak)
- Aisialdi, lan edo eskola-gaiei buruzko galdera-sorta eta inprimakiak (hotel batean erregistratzeko edo Europar Batasunetik kanpoko herrialderen batean sartzeko inprimakiak).
- Esmolde ezagunak darabiltzaten izaera sozialeko testuak: zoriondu, gonbidatu, onartu/uko egin, eskerrak eman, zerbait eskatu, barkamena eskatu.
- Seinale eta errotuluak.
- Instrukzio eta gauzak erabiltzeko arauak.
- Iragarki publiko eta oharrak.
- Poster eta iragarki komertzialak.
- Liburuxka eta gida turistiko eta komertzialak.
- Salneurrien zerrendak.
- Orduategiak.
- Ordain-agiriak, txartelak, irratia, telebista, zinema, antzerkiko programazioak, mapak.
- Telefono-gidak, agendak, aisialdirako gidak, katalogoak, hiztegiak.
- Web orriak .
- Errezetak
- Ikasle atzeritarrentzako aldizkari eta egunkariak.
- Komiki errazak.
- Kanten letrak .
- Horoskopoak.
- Mailakatutako eleberriak.

Nolako testuak entzuten dira?

Atazak egitean, testuak helburu zehatzak lortzeko entzuten dira.

- Aurrez-aurreko elkarrizketa informalak eta elkarrizketa/interakzio formalak.
- Informazio trukaketak.
- Ezagunak diren arloekin (informazio pertsonala, eskolak, ikasketak, lana, aisialdia, eta beharrian ohizkoenak) loturiko mezu eta azalpenak.
- Aurkezpen, deskribapen eta narrazio sinpleak, beti testuinguru baten barruan.
- Telefonoaren erantzungailuan utzitako mezuak.
- Geltoki, aireportu, kontzertu, kirol ikuskizunetan aurki daitekeen informazio eta iragarki publikoak.
- Informazio telefonikoa: eguraldia, trafikoa eta orduategiak.
- Trafiko eta eguraldiari buruzko telebista eta irratiko informazioa.
- Informazio turistikoa (audio-gidak).
- Publizitate-testuak (irratia, telebista, supermerkatua, etab.).

Nolako testuak ekoizten dira?

Atazak egitean, testuak helburu zehatzak lortzeko ekoizten dira.

Hitz egiteko

- Harreman sozialak: agurrak, aurkezpenak, zuribideak, eskertzeak, eta gertakari ezohikoak (laudorio, konplimenduak)
- Zorion-gutunak, gonbidapenak..
- Aurrez-aurreko elkarrizketa informalak eta izaera formaleko interakzioak.
- Informazio-trukaketak.
- Transakzioak: informazioa eta zerbitzuak eskatu eta eman, arazoak konpondu.
- Mezuak, deskripzioak eta narrazioak igorri eta errepikatu.
- Akordioa edo desakordioa adierazteko galdera eta esamoldeak.
- Emozioak adieraztea: beldurra, zoriona, atsegina, atsekabea, lehentasunak, harridura.
- Pertsona, bizi-leku, lan egoera eta interesen aurkezpena eta deskribapena.

- Egungo eta iraganeko eginkizunen kontakizuna.
- Asmo eta proiektuen formulazioa.
- Interesatzen zaizkion gaien inguruko aurkezpenak.
- Argumentazio errazak.

Idazteko

- Esperientzia, gertakari, pasadizo, benetako edo asmatutako gertaeren narrazioa.
- Pertsona, objektu, jarduera, zerbitzu eta tokien deskripzioak.
- Egitasmo eta proiektuen deskripzioa.
- Argudio eta iritzi-testu laburrak.
- Biografiak.
- Curriculum vitae-ak.
- Errezeta eta instrukzio errazak.
- Konpromiso eta arauak.
- Lan-eskaerak.

Zer gai jorratzen dira?

- Nork bere burua aurkeztu.
- Etxea, etxebizitza eta inguruak.
- Eguneroko zereginak.
- Aisialdia.
- Bidaiak.
- Giza eta gizarte harremanak.
- Osasuna eta zainketa fisikoak
- Hezkuntza.
- Erosketak eta merkataritza-jarduerak.
- Elikadura.
- Ondasunak eta zerbitzuak.
- Hizkuntza eta komunikazioa.
- Eguraldia eta ingurumena.
- Zientzia eta teknologia.

Zer gaitasun behar dira jarduera komunikatiboak egiteko?

Gaitasun pragmatikoak

Egoerara egokitzea: erregistroa

- Egoera eta testuingurua aintzat hartu mezua ulertu eta produzitzeko.
- Solaskidearekiko hurkotasan eta formalitate (publiko edo pertsonala) maila antzeman eta erabili (tratua, keinuak, jarrerak) beti ere estandar baten barruan.
- Ohizko egoera arruntetan erreakzionatu eta elkar hartuta lan egin xede-kulturaren usadioak begiratzuz.
- Konpartitzen den informazioa aintzat hartu beharrezkoa den informazioa eskaintzeko.

Ideien koherentzia antolaketa testu motaren arabera.

- Hartzen edo produzitzen diren testuen ezaugarri, antolakuntza eta moldeetara egokitu.
- Testuaren antolamendu grafikoan oinarritu bere egitura harrapatzeko,
- Ideiak modu koherentean antolatu (koherentzia tenporala, espaziala edo logikoa).
- Informazio nahikoa eta adierazkorra eman komunikazio asmoa bete dadin.

Konexio eta erreferentzia-errekurtsoak. Etorria.

- Testu antolatzaileak eta behar den doinua erabili diskurtsoaren bilakaera adierazteko..
- Denbora eta tokizko esamoldeak erabili mezua mugatzeko.
- Behar ez diren errepikapenak saihestu ordezkapen-errekurtsoak erabiliz (elipsia, izenordeak, aditz-lagunak).
- Lokailu eta puntuazio ikurrak ganoraz erabili.

- Testu zati bat azpimarratu doinu edo idazkerarekin.
- Testuaren denbora-koherentziari begiratu.
- Mailako testuen ulertze erraz batean trebatu egokienak diren estrategiak erabiliz.

Gaitasun soziolinguistikoa

Hizkuntza baten hitz egiten denean, hizkuntza horren molde guztiak jakin, ulertu eta erabili egiten dira. Ezaugarri soziokulturalen bitartez jendearen balioen, sinesmenen eta jarrerren berri daukagu, azken batean errealitatea ulertzeko beste modu baten berri (esaterako ordutegiak, gizalegea, jaiak, aisialdiko jarduerak, ospakizunak, gizarte-mailak, historia...).

Ezaugarri horien berri edukitzea oso aberasgarria da beste kultura bat ezagutzeko gaitasuna ematen duelako, eta gainera herrialde horretan eta bertako jendearekin zuzen jokatzeko laguntzen duelako.

Gizarte-harremanak: formaltasuna/informaltasuna, konfiantza-maila, hierarkia

- Egoera bakoitzari dagokion moldeak erabili.
- Pertsona ezezagunekin egotean ohiko jokaera eta hizkera erabili (jarrera, begirada, konfiantzarik ez ematea, eguraldiari buruzko galderak, isiluneak).
- Norberaren hizkuntzan erabiltzen ez diren keinuak ulertu eta erabiltzen hasi (bostekoa eman, musuak, konfiantzarik eman edo eman ez, begietara begiratu edo begiratu ez).

Hizkuntza estandarra eta bere aldaerak

- Egoera formala eta informala desberdindu eta egoera bakoitzean ohiko jokamoldea erabili.
- Ahozko eta idatzizko hizkuntzaren arteko desberdintasunen berri eduki.

Kultura-berezitasunak

- Sarritan erabiltzen den interferentziaren batek zentzu bikoitza edo itsusia daukala jakin.
- Denborazko esaerak ondo erabiltzen jakin.
- Kultura horretan iraingarriak edo tabuak izan daitezkeen alderdiak eta adierazpideak zeintzuk diren jakin.
- Sarritan erabiltzen diren esaera batzuek zer esan nahi duten eta zer testuingurutan erabiltzen diren jakin.
- Ohiko esaera batzuen zentzu bikoitza zein den jakin.

Gaitasun linguistikoa

Jarraian zehaztuko diren baliabideon bitartez (Oinarrizko Mailan programatutakoekin batera), betiere testuinguruaren arabera, burutu ahal izango dira mailari dagozkion ataza eta komunikazio funtzioak.

Gramatika

- **Perpauza**
 - Perpauza motak:
 - ✓ Galde perpauzak *norako*, *norentzako* galdetzailerekin (*Norako bidea hartu zenuen?*, *Norentzako kalte?*).
 - ✓ Aginte perpauzak.
 - ✓ Harridura perpauzak:
 - *ze(r)*, *zein* galdetzailerekin (*Ze gaizki egin duzun!*),
 - *nolako/zelako* galdetzailerekin (*Nolako itxura duzun!*).
 - Interjekzioak (*Arraioa!*, *Alde!*).
 - ✓ Perpausen intonazioa.
 - Perpausaren osagaien ordena, berau markatua denean:
 - ✓ Izena + aditza (*Idazkariak eman dit papera*)
 - ✓ Izenordea + aditza (*Neuk eman nion*)
 - ✓ Erakuslea + aditza (*Hauxe da erosi nahi dugun etxea*)
 - ✓ Adberbioa + aditza (*Hantxe ikasi nuen nik ere*)
 - ✓ Aditza + aditza (*Erregalatu egin dit*)
 - ✓ Baieztapena + aditza (*Badakit zein den*).
 - Subjektu – predikatu – atributu – komuntadura:

- ✓ Aditzarekin komuntaduran datozen elementuen elipsia: ([zuk] [nir] [partiturak] utzi zenizkidan).
- ✓ Zalantzazko aditz jokoak: *begiratu, deitu, eragin, gonbidatu, itxoin...*
- Perpaus inpersonalak (*Hemendik oso ondo entzuten da; Zarata honekin ezin da lorik egin*)
- Elementuen eta perpausen arteko alborakuntza:
 - ✓ Emendiozkoa: *bai...bai (Bai larunbatean bai igandean kanpoan bazkalduko dugu), ez...ez (Ez azaroan ez abenduan ez du euririk egin), ez bakarrik...ere (Ez bakarrik Jon, beste guztiak ere galdu dira), dela...dela (Dela oinez, dela bizikletaz, ederra da mendian ibiltzea).*
 - ✓ Aurkaritzakoa: *baizik, baino (Ez dago etxean, bulegoan baizik).*
 - ✓ Ere -ren erabilera.
- Menperakuntzakuntza:
 - ✓ Erlatibozko perpausak:
 - *-(e)n + kasu marka (Ez gehiegi fidatu hitz egin digunarekin).*
 - *-tako/-dako (goizean erositako ogia).*
 - ✓ Perpaus osagarriak:
 - *-(e)la (Ziur nago lortuko duzula).*
 - *-(e)nik (Ez dut uste etorriko denik).*
 - *-(e)na (Argi dago hori horrela dena).*
 - ✓ Perpaus kontzesiboak:
 - *nahiz eta + partizipio (Nahiz eta ikasi).*
 - *arren + partizipio (Etorri arren).*
 - ✓ Honako konparaziozko perpausak:
 - *bezain (Etxean bezain ongi nago hemen)*
 - *bestean (Amak bestean ondo egin duzu pastela)*
 - *besteko (Joana gizonak besteko indartsua da)*
 - *adina (Txoriek adina jaten du)*
 - *beste (horrek guk beste daki)*
 - *bezala (Aingeruak bezala mintzatzen da)*
 - *moduan (Bertakoen moduan egiten du ingelesez)*
 - *bezalako (Zu bezalako emakumerik ez dut ezagutu)*
 - *moduko (zure moduko ikaslerik ez dago)*
 - *honen, horren, hain, honenbeste, horrenbeste, hainbeste (hain urruti, hainbeste jende).*
 - ✓ Baldintzazko perpausak:
 - *Aditza jokaturata (ikusiko) banu, ezagutuko nuen (ezagutuko nuke)*
 - *Aditza jokatu gabe:*
 - (e)z gero (Nahi izanez gero)*
 - t(z)ekotan (Inori ez kontatzekotan, sekretu bat esango dizut).*
 - ✓ Kausazko perpausak:
 - *Aditza jokaturata: -(e)nez gero (Ezertarako behar ez nuenez gero, bota egin nuen); zeren eta ze loturak (Ez egin kasurik, ze zoratuta dago); eta (Ez da joango, berandu da eta)*
 - *Aditza jokatu gabe: -t(z)eagatik (Korrika ibiltzeagatik gertatu zaizu); -t(z)earren (Zenbat emango dizute hori garbitzearen?).*
 - ✓ Helburuzko perpausak:
 - t(z)eagatik (Zu ikusteagatik etorri naiz);*
 - t(z)earren (Lehenbailehen bukatzearen egin ditu gauzak horrela);*
 - t(z)en/-t(z)era (azterketa egiten joan dira)*
 - ✓ Denborazko perpausak:
 - *aurrekotasuna: partizipioa + aurretik, baino lehen; -t(z)erakoan*
 - *berehalakotasuna: partizipioa + orduko, partizipio + bezain laster, -takoan (Kalera ateratakoan hasi zuen euria).*
 - *gerokotasuna: partizipioa + eta gero, ondoren, ostean, -(e)netik;*
 - *aldiberekotasuna: -(e)la, -t(z)ean*
 - *iraupena: (bitartean, harik eta...arte).*
 - ✓ Moduzko perpausak:

- *-(e)n bezala / -(n) bezalakoa: nahi duzun bezala / nahi duzun bezalakoa*
- *-(e)n moduan / -(e)n modukoa: utzi dagoen moduan / dagoen modukoa*
- **Deklinabidea**
 - Izen bizidunak eta bizigabeak; izenordainak, erakusleak eta leku-izenondoak.
 - Kasuak:
 - ✓ Ergatiboa, *nork/zerk*, mugagabea (*Adiskide batek eman dit*).
 - ✓ Absolutiboa, *nor/zer*, mugagabea (*Zenbat behi erosi dituzte?*).
 - ✓ Datiboa, *nori/zeri*, mugagabea (*Zein langileri gertatu zaio?*).
 - ✓ Jabego genitiboa, *noren*, mugagabea (*Zenbait adiskideren aholkua*).
 - ✓ Leku genitiboa, *nongo*, mugagabea (*Zein etxetako atezaina?*).
 - ✓ Inesiboa, *non/norengan*, singularra eta plurala (*herrian, herrietan / amarengan, izebengan*).
 - ✓ Adlatiboa, *nora/norengana*, singularra eta plurala (*kalera, kaleetara / lagunarengana, lagunengana*).
 - ✓ Muga-adlatiboa, *noraino / norenganaino*, singularra eta plurala (*teilaturaino / zuzendariarenganaino*).
 - ✓ Ablatiboa, *nondik / norengandik* singularra eta plurala (*zelaitik, zelaietatik / auzokoagandik, etsaiengandik*).
 - ✓ Destinatiboa, *norentzat*, singularra eta plurala (*umearentzat, umeentzat*).
 - ✓ Soziatiboa, *norekin*, singularra eta plurala (*saguarekin, saguekin*); Nogaz (*umeagaz, umeakaz*)
 - ✓ Hurbiltze-adlatiboa, *norantz / norenganantz*, singularra eta plurala (*etxerantz, etxeetarantz, lagunenganantz*).
 - ✓ Motibatiboa, *norengatik*, singularra eta plurala (*zugatik, aitarengatik*).
 - ✓ Instrumentala, *zerez*, singularra eta plurala (*makinaz, egurrez*).
- **Izen sintagma**
 - Izena
 - ✓ Izen motak: elkartuak (seme-alabak, arrain zopa, negu giroa).
 - ✓ Generoa: kasu bereziak (maisua/maistra, printze/printzesa); ohiko elkarketak (aita-amak, seme-alabak, senar-emazteak).
 - ✓ Maila: absolutua (*mutil, andere*) eta erlatiboa (*mutikote, andereño*).
 - Determinatzaileak:
 - ✓ Artikuluak: zehaztuak (*-a/-ak/-ok*) eta zehaztugabeak (*bat, batzuk*).
 - ✓ Zenbatzaile zehaztuak:
 - Ehunekoak (*ehuneko bost*).
 - Esamoldeak (bizpahiru, hoge(ren) bat, baten bat, gutxi gorabehera, botila bat ur).
 - ✓ Zenbatzaile zehaztugabeak (*makina bat, hamaika*).
 - Izenaren osagarriak:
 - ✓ Izenlagunaren **osaera** berriak:
 - Izena + *-ko* (hitzeko gizona): izena + izenondoa + *-ko* (meritu handiko neska); zenbatzailea + *-ko* (bi urteko umea, hiru litroko ur-botila, egun osoko lana, zenbateko prezioa?, hainbat asteko atzerapenaz).
 - Deklinabide kasua + *-ko*: norako (Hondartzarako toaila), norentzako (llobentzako opariak).
 - Osagarrien kokagunea: (kartoi lodiko kaxa; gazte prakamotza; bekain iletsudun agurea; agure bekain iletsua)
 - Izenondoaren graduatzaileak (nahiko atsegina, aspergarri samarra, oso baldarra). Errepika: txiki-txikia.
 - Konparaziozko graduatzaileak: *-ago* (txikiago, gutxiago, handiago, gehiago), bezalakoa.
 - Partizipioaz osatutako adjektiboak: (Kotxe lapurtu batean egin zuten ihes, egindako ahalegin guztia, amaitu gabeko ikasketak).

- Aposizioa (Asier, nirekin ateratzen zena, ezkondu egin da).
 - Erlatiboak perpausa nor, nork, nori kasuekin burutua (galdera egin zuena, mendian galdu zirenek, bost urte dituztenei, zauritutakoek erietxea utzi dute).
 - Esamoldeak: -arena egin (pailazoarena egin).
 - ✓ Izenordainak:
 - Zehaztugabeak (edonor, edonork, edonori... norbait, norbaitek, norbaiti... inor, inork, inori...).
 - Beste (beste liburua, beste liburu bat)
 - Bihurkariak (neure burua).
 - Galdetzaileak (nortzuk, zertzuk).
 - Elkarkariak (elkar).
- **Aditz sintagma**
 - Perpausaren osagarriekiko (subjektu - objektu zuzen – objektu datibo) komunztadura..
 - Denbora: oraina, iragana eta geroaldia.
 - Aspektuak: puntukaria, burutua, burutugabea.
 - Aditz trinkoak orain aldiak: nor-nork sistema: esan (di[n]ot, di[n]ozu...).
 - Aditz trinkoak iraganean:
 - ✓ nor sistema: izan, egon, ibili, etorri, joan.
 - ✓ nor-nork sistema: ukan, eduki, jakin, eraman, ekarri.
 - Aditz laguntzailea orain aldiak eta iraganean:
 - ✓ nor-nori-nork (Irribarre egin zidan)
 - ✓ nor-nork (Ez ninduen agurtu).
 - Adizkera inpersonalak: (Hemen ez zaigu/digute kasurik egiten; Eguberrietan asko edaten da).
 - Jokatuak:
 - ✓ Partzipioak: –ta (Neke eginda heldu da), –(r)ik (asperturik zebiltzan)
 - ✓ Nominalizazioa: (ez da erraza problema konpontzea; holakorik ikustek asko ematen dit; ez dago zurekin asmatzerik)
 - ✓ Perifrastikoak:
 - –t(z)ea gustatu, erabaki, ahaztu...
 - –t(z)en jakin, ikasi, lagundu...
 - –t(z)era behartu, ausartu, gonbidatu.
 - –t(z)eko prest egon, asmoa izan, gai izan.
 - –t(z)eari utzi, ekin.
 - ✓ Gerundioa: – t(z)en: (erortzen ikusi nuen); –z (eroriz ikasten da oinez); –ta (aspirina hartuta joan zait buruko mina); –la (eskua poltsa barruan duela harrapatu dute lapurra).
 - Ahalera (orain aldiak / leuna)
 - ✓ nor (etor naiteke / ninteke).
 - ✓ zer-nork (ikus dezakegu / genezake).
 - Baldintza, irreal / hipotetikoak, eta ondorioak:
 - ✓ nor (ausartu(ko) banintz, garaile aterako nintzen / nintzateke).
 - ✓ zer-nork (eskuetan hartu(ko) banu, hobeto ikusiko nuen / nuke).
 - Modalitatea:
 - ✓ Beharizana (ezinbestekoa da, nahitaezkoa da...-t(z)ea)
 - ✓ Betebeharra (beharrezkoa duzu...-t(z)ea)
 - ✓ Ahal izatea (-t(z)eko gai izan, -t(z)ea izan)
 - ✓ Asmoa (-t(z)ekoa izan, -t(z)ekotan egon).
 - Aditz lokuzioak:
 - ✓ izan (ahal, ezin, nahi, behar, balio, bizi, merezi... izan).
 - ✓ egin (hitz, lo, lan, amets, oihu, barre, negar... egin).
 - ✓ hartu (kontuan, hitza, parte, begitan, loak... hartu).
 - ✓ eman (hitza, denbora, amore, musu... eman).
 - ✓ erabili (asmoa, buruan, ahoan... erabili).
 - ✓ jo (adarra, begiz, larrua...).
 - Partikula modalak:
 - ✓ al (Berak egin al zuen?)

- ✓ ote (Berak egin ote zuen?)
- ✓ omen/ei (Berak egin omen zuen)
- Ekintzen korrelazioa eta denbora – moduen komunztadura. Denboraren korrelazioa narrazioan (Etxera deitu du/zuen berandu datorrela/etorriko zela esateko).
- Osagaien ordena:
 - ✓ Galde perpausetan: galde izenordaina + aditza (zergatik egin duzu hori?;
 - ✓ Ezezko perpausetan:
 - ✓ Aditz trinkoekin: (IS) + ez + aditza + (IS) (nik ez dakit ezer).
 - ✓ Aditz perifrastikoekin: (IS) + ez + laguntzailea + (IS) + aditz nagusia (Jones ez du lanik egiten).
- **Adberbioa**
 - Lekua, denbora eta modua adierazi.
 - Aditzondo eratorriak: –ki (biziki, automatikoki), -ka (keinuka, gordeka).
 - Kategoria aldaketak: izenondoa aditzondo (zikin dago; gogor aritu dira; zoaz azkar).
 - Gradua:
 - ✓ Erabateko ezeztapena: batere (ez dago batere pozik).
 - ✓ nahikotasuna: nahiko, aski, samar.
 - ✓ Maila gorena: oso, biziki, asko, izugarri.
 - ✓ Absolutua: erabat, guztiz, zeharo, sano
 - ✓ Gehiegizkoa: -egi, lar, sobera.
 - ✓ Beste maila batzuk: erdi, benetan (erdi biluzik kaleratu zen; benetan ondo jo zuten pieza)
 - Galdetzailleetatik eratorritako adberbioak: inon, inongo, inondik, inola, inolako, nonbait, nolabait, edonon, edonola...
 - Jarreraren adierazpena:
 - Iritzia (nire ustez, bere iritziz).
 - Ziurtasuna (ziur asko, jakina!, noski, zalantzarik gabe).
 - Ziurtasunik eza (badaezpada ere).
 - Esamolde adberbialak: batez ere, bat-batean, lehenengo eta behin, noizean behin, nire partez, hamaika bider, zoritzarrez,
- **Loturak**
 - Lokailuak:
 - ✓ emendiozkoak (baita/ezta ... ere, gainera, bestalde, behintzat).
 - ✓ hautakariak (bestela,ezpabere,osterantzean,ostean).
 - ✓ aurkaritzakoak (hala eta guztiz ere, berriz, ordea).
 - ✓ ondoriozkoak (beraz, orduan).
 - ✓ kausazkoak (zeren, ze).
 - Posposizioak
 - ✓ genitiboarekin: (noren) arabera, arte(an), aurka / kontra, aurrean, atzean / ostean, azpian, barruan / barnean, beharrean, bidez / bitartez, gainean, inguruan, menpe(an), ondoan, ordez, parean, partez, truk(e)
 - ✓ datiboarekin: (nori) esker
 - ✓ inesiboarekin: (non) gora, behera, zehar.
 - Aditz lokuzioak: begira, bila, eske, zain.
 - Posposizioen komunztadura: Trafikoa murriztearen alde ala aurka zaude?

Diskurtsoa

● Kohesioa

- Kohesio prozedurak:
 - ✓ Errepikak (Ez da ona haragia jatea, ez da ona gozoa jatea... zer jango dugu, ba?)
 - ✓ Ordezkatze prozedurak, erreferente argiekin: elipsia, izenordeak eta adberbioak edo esamolde anaforikoak (horixe, hantxe, berak, kontua da, zera ..., hau da...).

- ✓ Baliabide lexikalak: sinonimoak (nagusi, buruzagi,...), ohiko kontzeptuen hiperonimoak (irratia, komunikabidea), hiponimoak (lehendakaria, presidentea, mandataria...), nominalizazioa.
- ✓ Aditz denboraren koherentzia (bihar bukatzeko asmoa zutela esan zuen / bihar bukatzeko asmoa dutela esan zuen)
- **Antolakuntza**
 - Ohiko esamoldeak:
 - ✓ norbaitengana zuzentzean (aizu, jaun-andreok, lagunok)
 - ✓ agurtzean (egunon guztioi)
 - ✓ hasieran (hasteko, lehen-lehenik...)
 - ✓ iritziak ematean (nik esango nuke)
 - ✓ elkarreraginean (arrazoi duzu)
 - ✓ mintzakidea murgilarazteko (zein da zure iritzia?)
 - ✓ adostasuna adierazteko (ni ere ados nago)
 - ✓ hitza hartzeko (axola ez bazaizu)
 - ✓ azalpenak ematean (hara, begira)
 - ✓ laguntza eskatzerakoan (lagunduko didazue?)
 - ✓ eskertzeko (mila esker, ez dago zergatik)
 - ✓ amaiera prestatzeko (bukatzeko, hitz gutxitan)
 - ✓ agurtzeko (besterik gabe).
 - Eguneroko harreman eta egoeretan izan ohi diren elkarreragiteak: galdetu-erantzun, eskaini-onartu (errefusatu), eskatu-eman, laudorioak bota-garrantzia kendu...
- **Konexioa**
 - Antolatzaileak:
 - ✓ hasiera (egun hartan, lehenengo eta behin)
 - ✓ garapena (hau ikusi eta gero, honetaz gain)
 - ✓ konklusioa (esandakoaren arabera)
 - ✓ gai aldaketa (dena dela, edozein modutan ere)
 - ✓ informazioa gehitu (gainera, bestalde)
 - ✓ sailkatu (alde batetik ... bestetik)
 - ✓ ordena (lehenik ... bigarrenik)
 - ✓ ziurtasun eza (dirudienez)
 - ✓ indartzea (berriro, berriz diot)
 - ✓ exenplutasuna (adibidez, esate baterako)
 - ✓ arrazoitu (-(e)la kausa, beste era batera esanda)
 - ✓ ezadostasuna (ez gaude ados, sentitzen dut baina ez nago konforme)
 - ✓ azpimarratu (onartu behar da, dudarik gabe)
 - ✓ laburtu (konklusio gisa, laburbilduz).
 - Denbora eta espazioa mugatzeko antolatzaileak (orain dela ..., aurreko egunean, biharamunean, handik gutxira, bertan, dagoeneko, jadanik).
 - Puntuazioa eta paragrafoak.
 - Testu motaren araberako formatua. Sailkapenak, erreferentziak, aipuak, azpimarrak...
 - Intonazioa eta geldiuneak edo isiluneak.
- **Fokalizazioa:** galdegaia eta mintzagaia (ikus PERPAUSA: ordena)
 - Sintagmaren leku-aldaketa bidezko fokalizazioa: Irabazi, ez genuen ezer irabazi, baina ederto pasa genuen.
 - Zera lokailu fokalizatzailea: Zera esan behar dizut...
- **Deixia**
 - Adierazpen modu ezberdinetan (elkarrizketa zuzenean, telefonoan, txatean, gutunean...) eta zehar-diskurtsoan eta narrazioan erabili beharreko elementu deiktikoak: izenordain, erakusle, eta leku-denborazko esamoldeen erabilera.
- **Kortesia**
 - Ekintza sozialetarako denbora eta esamoldeak (hasiko gara?, has gaitezen, hasi behingo!).
 - Partehartze esamoldeak (bai noski!, ez bai!).
- **Inferentzia**

- Esamoldeak egoeraren arabera hartzen duen esanahia (-Besterik? -Ez, hau da dena. –Gehiagorik ez? –Ez, mila esker, bete-bete eginda nago).

Lexikoa eta semantika

- **Hiztegia**
 - Ohiko esapide formal eta informalak zehaztutako egoera komunikatiboetarako.
 - Landutako gai eta egoeren inguruko hiztegi aldaerak (tokikoa / estandarra).
 - Erabilera zabaleko sintagma lexikalizatuak eta estereotipoak (adiskide mina, hasiera eman, abian jarri, bazterrak nahastu; zurrumurrua zabaldu...).
 - Sarri erabiltzen diren esamoldeak: argi eta garbi, kili-kolo, lur jota, urteak joan urteak etorri...
- **Hitzen osaera**
 - Eratorriak: des- (desegin) aurrizkia; -tasun (amatasun), -keria (zurikeria), -keta (azterketa), -te (eurite), -di (pinudi) atzizkiak.
 - Elkartuak: baba-lore, itsasgizon...
 - Maileguak: minigona, termometro...
 - Txikigarri eta handigarriak (umetxo, andereño, eskutzar, mutikote).
 - Nominalizazioa.
 - Sarri erabiltzen diren siglak eta laburdurak.
- **Esanahia**
 - Landutako gaiei lotutako eremu lexikalak.
 - Sinonimoak edo esanahi beretsuko hitzak.
 - Antonimoak.
 - Esanahi bikoitza edo anitza duten hitzak.
 - Hurbiltasun formalagatik nahasmena sor dezaketen hitzak.
 - Hitzen esanahia.
 - Hiztegiaren erabilera.
 - Kidetasun faltsuak edo inguruko hizkuntzekin sor daitezkeen interferentziak (xelebre, dotore...).

Fonologia eta ortografia

- **Fonologian:**
 - Bokalak eta kontsonanteak ezagutu eta ahoskatu.
 - Euskaltzaindiaren aholkuak: EBAZ (euskara batuaren ahoskera zaindua).
 - Zailtasun handienak dituzten fonemak bereziki landu: Bustidura: in [ñ]: baina [baña], il [ill]: mutila [mutilla], is [ix]: isilik [ixilik]; z, s, ts, tz [x, tx]: zakur [txakur], itsaso [itxaso].
 - Arreta jarri zailtasunak dituzten prozesu fonologikoetan. [Z]-k eragindako aldaketak: ez naiz [enaiz], ez zara [etzara], izanez gero [izanezkero], hor zegoen [hortzegoen]...
 - Sarri erabiltzen diren maileguen egokitzapena (funtzionario, denda), hasieran <r> (erlazio, Erroma, arratoi) dakartenak, eta bukaeran -(c)ión (informazio, kamioi) dutenak.
 - Epentesia: bokalezkoa (lxabelek); kontsonantikoa (hirurehun, lauretan).
 - Ahostun bihurtzea: berrehun eta bost [berrehundabost].
 - Elipsia: zer ordu da [ze ordu da]; Jon eta, ez dira etorri [Jon ta, eztira etorri].
 - Doinu eta letren/zeinuen arteko korrespondentzia.
 - Silabaren egitura eta banaketa.
 - Euskal azentuaren berezitasunak hitzak deklinatzean: [la-gún / lá-gu-nak]. Azentua aditzetan: [i-ká-si / i-ká-si-kò]. Hitz markatuak: [ór-du, nés-ka, pí-su...]
 - Intonazioa ereduak.
 - Intonazioa landutako iharduera komunikatiboetan.
 - Erritmoa.
- **Ortografian:**
 - Oinarrizko hiztegiaren ortografia zaindua.
 - Zailtasun handieneko fonemen transkribaketa: DD (onddo), LL (tortilla), RR (errota), TS (mahats), TT (pottoka), TX (txiki), TZ (hitz).
 - GE, GI, NP, NB grafiak menperatu.
 - Atzerriko izenen idazkera.
 - Maiuskulen erabilera.

- Ortografia zeinuak: hitz elkartuen marratxoak (seme-alabak).
- Laburdura eta sigla erabilienak.
- Puntuazio-markak: puntua, koma eta bi puntuen oinarritzko erabilera.

Zer estrategia erabiltzen da jarduera komunikatiboak burutzeko?

Eraginkortasunez komunikatzeko helburuarekin bere errekurtsu guztiak erabiltzeko hizkuntzaren erabiltzaileak indarrean jartzen dituen prozedura mentalei estrategia deituko diegu hemen.

Jarduera planifikatzeko.

- Norberaren ezagupen eta esperientziak indarrean jartzen dira entzun edo irakurriko dena aurrez ikusteko.
- Komunikazio egoera mugatu egiten da eta solaskideak aintzat hartzen dira mezuaren edukia zein forma aldeztatik aurretik prestatzeko helburuarekin.
- Mezua planifikatu egiten da eta, halaber, aztertu egiten da nola adierazi nahi diren ideiak.
- Norberak dituen errekurtsuak aztertzen dira eta mezua berraztertzen da edo beharrezkoak izango diren errekurtsuak bilatzen dira..
- Puntu garrantzitsuak adierazteko erari buruzko saio eta aurreikuspenak egiten dira.
- Solaskideek zer dakiten edo zer ez aztertzen da.
- Esaldi arruntak buruz ikasten dira.

Jarduera burutzeko.

- Lehenengo, entzun edo irakurtzen denaren asmoa jasotzen saiatzen da.
- Testua arin aztertzen da topatu nahi duguna hor dagoen jakiteko eta gero, datu zehatzak bilatzen dira, gure helburua hori bada.
- Arreta handia jartzen da edukiari buruzko inferentziak egiten lagunduko diguten hitzak harrapatzeko.
- Testuko ideiak pixkanaka deskubrituz joaten da hipotesiak eginez eta berauek kontrastatuz.
- Hitz ezezagunak dituzten esaldien esanahia ondorioztatzen da, beti ere gai ezagunei buruz ari garela.
- Linguistikoak ez diren elementuei ere arreta jartzen zaie (irudiak, moldea, doinua, keinuak) ulertzea errazte aldera.
- Testuingurutik abiatuta, ulermenean gerta litezkeen hutsuneak betetzen saiatzen da.
- Berrirakurri edo berriro entzuten da hipotesiak egiaztatzeko.
- Ikasteen egiten dugun bezala, oharrak hartuko ditugu, azpimarratuko dugu edo eta eskemak egingo ditugu bai idatzizko testu batean bai entzutezkoan.
- Zalantzak edo ezezagunak diren hitzen esanahia asmatzen saiatzen da.
 - Ezagupen orokorrak eta beste hizkuntza batzuetakoak, egoeraren eta irudien ezagupenetik abiatuta.
 - Testu edo esaldiaren zentzu orokorretik abiatuta.
 - Testuingurutik abiatuta (erredundantzia, adibide, sinonimo, argibideak...)
 - Beste hizkuntza batzuen ezagutzatik abiatuta.
 - Gako gramatikal eta lexikoetatik abiatuta (hitzen familiak, kategoria gramatikalak, kokapena etab.)
 - Xede hizkuntzako lexiko eta maiz erabiltzen diren esapideak ama hizkuntzarekin alderatzen dira, batez ere interferentziak eta sasi-lagunak gerta daitezkeenean.
- Nork bere estrategiak erabiltzen ditu (azpimarratu edo ezagutzen ez diren hitz gakoak apuntatu geroago berriro lantzeko, hitz gakoaren zerrendak egin, konektoreenak...)
- Ezagutzen ez diren hitzen esanahiaren gainean hipotesiak egin ondoren hiztegia erabiltzen da.
- Esapide egokiak erabiltzen dira arreta erakartzeko, hitza hartu edo emateko, hasteko, jarraitzeko, elkarrizketa amaitzeko.

- Ohiturazko esamoldeak erabiltzen dira, kodez aldatzen da nabarmenki, beste hizkuntza bateko hitzak hartzen dira, parafraseatu egiten da, adibideak jartzen dira, beste era batera adierazten dira gauzak.
- Zailtasunak estrategia sozialak erabilia saihesten dira: solaskideari laguntza eskatzen zaio, barkamena eskatzen da hobeto ez idazteagatik edo berba ez egiteagatik, keinuak erabiltzen dira, keinu edo marrazkien bitartez adierazten da.

Jarduera zuzendu eta ebaluatzeko.

- Ondo ulertu den kontrastatu eta egiaztatu egiten da
- Ulertzen ez dena seinatu egiten da.
- Modu batean edo bestean, mezua argiago adierazita ager dadila eskatzen da.
- Esapide eta hitz berriak buruan gordetzen dira eta gero praktikan jarri erabilera egiaztatzeko.
- Gaizki ulertuak zuzendu egiten dira solaskideak lagunduta.
- Erabilitako badaezpadako esapidea zuzena ote den galdetzen da.
- Komunikazioa eten eta gero berriro ekiten zaio taktika berri bat erabiliz.
- Erroreen zergatiak analizatu eta berauek gainditzeko beste era batzuk erabiltzen dira.
- Solaskideek elkar ulertzen dutela egiaztatzen dute.

TARTEKO MAILA: 2. URRATSA

HELBURUAK

Zeintzuk dira 2. urratseko helburu orokorrak?

Tarteko mailako 2. urratsean ikasleak hauxe ikasten du

- Eskolan eta eskolatik kanpoko hainbat egoeratan erabiltzen ikasten dabilen hizkuntza, bera bertan dagoela edo modu birtualean, gai zehatz, orokor edo kulturei buruz bere iritzia azaltzeko eta jendearekin komunikatzeko.
- Elkarrizketak ulertzen, bertan parte hartzen eta berba zuzen egiten, ahoz nahiz idatziz, baina erregistro estandar formalean eta informalean.
- Eguneroko egoeretan eta lan arloan gero eta hobeto moldatzen, egoera horietan erabili behar diren esapideak, keinuak, erregistroak eta tratamenduak erabiltzen.
- Behar diren baliabide linguistikoak barneratzen erabilera praktikoa eta formalaren bitartez eta estrategiarik onenak erabiliz.

Zer komunikazio-jarduera egiten dira?

Ahozko jarduerak

Egoera eta gai askotan zuzen parte hartu; horretarako seguritate eta jario nahikoa erabili, egitura eta kohesio erraza baina eraginkorra, eta, kanpoko azentua eduki arren, ulertzeko moduko ahoskera.

Elkarrizketak

- Jendea ezagutu eta bat-bateko elkarrizketetan parte hartu: horrelakoetan informazioa, iritziak eta jarraibideak hartu eta eman, edo eguneroko arazoak konpondu.
- Gai orokorre buruzko elkarrizketetan nahikoa seguru parte hartu eta hain orokorrak ez direnetan ere bai, alegia, norberari ardura dioten edo norberaren espezialitateko gaiet buruzkoetan.
- Arazo baten arazoak azaldu, zer egin behar den eztabaidatu, konparatu eta aukerak kontrastatu.
- Sentimenduak azaldu: ezustea, zoriona, tristura, interesa eta ardurarik eza.
- Jendaurrean eta egoera askotan erabili behar diren gizalegezko esapideak erabili.

Eztabaidak eta debate formalak

- Iritziak, asmoak, adostasuna eta desadostasuna adierazi eta defendatu, horretarako behar diren azalpenak, argudioak eta komentarioak emanez.

Negoziatioak

- Transakziorik gehienak ondo burutu (edozer kontratatzean, matrikularen bat egitean...)
- Traba barik negoziatu dendetan eta zerbitzu publikoetan ohikoak ez diren arazoak; esaterako, asebate ez zaituen zerbait itzuli.
- Arazoren bat konpontzeko edo negoziatzeko zer dakizun eta zer ez adierazi, zer egin behar den eta zer ez, zer egin daitekeen eta zer ez, ados zaudela edo ez zaudela eta zertan zatozen bat eta zertan ez.

Informazioa elkarri trukatu

- Gai orokorre nahiz norberaren espezialitatekoei buruzko informazio zehatza lortu, trukatu eta egiaztatu.
- Zer edo zer zelan egin behar den deskribatu azalpen zehatzak emanez.
- Pasadizoak, artikulak, hitzaldiak, eztabaidak, elkarrizketak *nahiz* dokumentalak laburtu eta horiei buruzko iritzia eman, eta gainera galderei erantzun zehaztasunak emanez.

Deskribapena eta narrazioa

- Bizipenak zehatz eta jario nahikoaz kontatu, eta horretarako egoerak, sentimenduak eta jokaerak deskribatu eta konparatu.
- Ezusteko gertakizunak zehatz-mehatz kontatu, esaterako, istripu bat.
- Ametsak, itxaropenak eta desioak deskribatu, benetakoak nahiz alegiazkoak.

Jendaurreko aurkezpenak eta azalpenak

- Norberaren espezialitateko gai bat prestatu eta labur eta zehatz aurkeztu; ondoren, galderei erantzun.
- Datuak/ideiak erlazionatu eta ezaugarri nagusiak atera.
- Gai bati hasiera eman, beste gai batera pasatu eta amaitu.

Idatzizko jarduerak

Testuek egitura linguistiko nahikoa eduki beharko dute, eta antolaketa eta kohesio errazak baina eraginkorrak; gainera egoera komunikatiboa hartu beharko dute kontuan.

- Berbalagunei mezuak idatzi informazioa emateko, esperientziak, nahiak, joerak, erreakzioak, sentimenduak eta gertakizunak deskribatzeko, garrantzia eman nahi zaionari indarra emanaz.
- Eskutitzak idatzi gai zehatz edo orokorreari buruzko iritziak emateko, informazioa egiaztatu eta arazoei buruz galdetu edo arazoak nahikoa zehatz azaldu.
- Zerbitzu publikoetan eta pribatuetan lanean dabiltzanei notak idatzi informazioa emateko edo azalpenen bat eskatzeko, garrantzitsua irizten dena nabarmenduz.
- Eskutitz formalak idatzi informazioa edo zerbitzuren bat eskatzeko, arazoren bat azaltzeko, erreklamatzeko, edo eskerrak emateko.
- Eguneroko gertakizunei buruzko txosten arruntak eta laburrak prestatu, eta zergatik jokatu den horrela edo hala.
- Nahikoa seguru eman eguneroko gaiei buruzko iritzia edo norberaren espezialitateko gaiei buruzkoa.
- Norbera aurkezteko edo informazioa emateko jarraibideak idatzi, lan-eskaerak, curriculuma, iragarki laburrak.
- Norberari gertatutakoa testu errezetan eta egituratuetan idatzi sentimenduak eta jokaerak deskribatuz.
- Benetako nahiz alegiazko gertakizunak kontatu. Istorio bat kontatu.
- Norbere gustuko gaiei buruzko saiakera errazak idatzi, iritziak azalduz.

Entzunaren ulermen-jarduerak

Gai orokorreari buruzko interakzioak eta mezu luzeak, hain ohikoak ere ez diren egoeretan sortuak, erregistro estandarrean argi adieraziak, eta informazio guzti-guztia kontrolatu ez arren mezu ulertzeko modukoak.

- Jende artean edo hain ohikoak ez diren egoeretan elkarrizketa baten parte hartu eta galdetzen denari erantzun, ulertzen ez dena azaltzeko edo errepikatze eskatu ahal bada behintzat.
- Gai orokorreari buruzko edo norberaren espezialitateko gaiei buruzko eztabaiden punturik garrantzitsuenak aditu, eta orokorrean zer esaten den ulertu, berbetan dabiltzanek argi ahoskatzen badute eta hizkera itxiegia ez badarabilte.
- Eztabaida bat entzutean, gaia aldatu dutela konturatu eta iritzi kontrajarriez jabetu.
- Pertsona, gauza, jarduera, zerbitzu eta lekuei buruzko informazioak ulertu.
- Testuingurua duten azalpen zehatzak aditu.
- Informazioa bildu eta hain ohikoak ez diren eragiketak burutu.
- Elkarrizketetan, besteak arin edo luzeegi erantzun badu, ondo ulertu zaiola ziurtatu, inoiz entzundakoa errepikatze eskatu behar bada ere.
- Gai orokorreari buruzko edo norberaren espezialitateari buruzko azalpenak, deskribapenak, eta narrazio laburrak aditu, ondo osatuta badaude.
- Hitzaldi edo azalpen baten argibide zehatzak hartu.
- Informazio tekniko errazak aditu, esaterako zelan erabili edo zelan osatu tresna arrunten bat.
- Argibide zehatzak aditu.

- Iragakiek zer esan nahi duten ulertu.
- Megafoniaz emandako iragarki eta mezuak ulertu, testuinguru baten barruan.
- Norbere gustuko eta nahikoa argi eta astiro egindako telebista saiorik gehienak ulertu (elkarrizketak, hitzaldi laburrak eta albistegiak).
- Berba erraz eta gutxiko pelikulak ulertu, akzioak eta irudiek osatzen duten argudioko pelikulak.

Irakurriaren ulermen- jarduerak

- Ohiko eskutitzak, SMSak eta korreo elektronikoak ulertu eta zertarako idazten diren jakin (azalpenak edo informazioa eman eta eskatzeko, zerbait jaso izana erreklamatzeko, eskerrak emateko...).
- Gai zehatz nahiz orokorrei buruzko informazioa ulertu eta egiaztatu.
- Berbalagunaren konfiantza-maila neurtu, batez ere sarrera eta amaiera agurrak kontuan hartuta.
- Gertakizun, jarraipen eta gurarien deskribapena ulertu lagunekin sarri edukitzeko gutun-trukea.
- Testu luzeetan informazio zehatza aurkitu eta iturri askotako informazioak lortu lan bat egiteko.
- Interneten informazio zehatzak bilatu eta topatu ikasten dabilen hizkuntzan dauden web orrietan eta helbideetan begiratuta.
- Gai orokorrei buruzko albiste edo artikulua erraz baten puntu esanguratsuak ikusi, aldez aurretik adibideak edukita.
- Hitzaldi baten argudio-egitura zein den jakin.
- Argudio testu argi baten ondorioak zeintzuk diren jakin.
- Norbere gustuko testu literarioen argudioa zein den jakin eta euren asmoa ulertu.
- Lekuren batera joateko, ariketa fisikoak egiteko, errezeta bat prestatzeko, joko bat egiteko, aparatu bat erabiltzeko, zerbitzuren bat lortzeko jarraibideak ulertu.
- Argi idatzitako arauak ulertu (gelako seguritateari, jarrerari eta erantzukizunei buruzkoak, bidaiak egiteko aholkuei buruzkoak, e.a.).

EDUKIAK

Zer funtzio ikasi behar da?

Hizkuntzaren gizarte erabilerak

- Agurtu, nork bere burua aurkeztu, besteak aurkeztu, aurkeztua izandakoan jarrera bat hartu, lagun, ezagun, arrotz edo bezero bati berba egin, baimena eskatu, aitzakiaren bat jarri, barkamena eskatu, eskerrak emon, zoriondu eta beste inoren arreta erakarri.
- Beste pertsona batzuekiko interesa erakutsi, albiste baten aurrean jakinmina, harridura, pena, tristura, poza, etsipena, esperantza, beldurra, atsekabea, oniritzia, kontrako jarrera erakutsi.
- Beste erabilera batzuk: oparitu, goretsi, gonbidatu, zoriondu, topa egin, ongietorria egin, zenbait gertaeren aurrean desiorik onenak opatu.
- Adostasuna, desadostasuna, probabilitatea, beharra edo beharrik-eza, ziurtasuna, zerbait egiteko gaitasuna, asmoa, nahia, oroitzenak kezka eta ardurak adierazi.
- Aurrean aipaturiko ekintza horien guztien gainean galdetu.
- Laguntza eskatu eta eskaini, gonbidapen bat onartu eta errefusatu, baten bat jakinaren gainean jarri, aholkuak emon, iradoki, iradokizun bat onartu edo errefusatu, barkamena eskatu, desenkusak onartu eta barkamena emon eta eskatu.

Komunikazioaren kontrola.

- Laguntza eskatu: adierazi ez dela ulertzen, errepikatzeko, argitzeko edo zerbait letraka esateko eskatu, letraka esan, faborez astiroago hitz egiteko erregutu, ulertzen edo ezagutzen ez diren esamoldeei buruz galdetu.
- Beste inoren diskurtsoa ondo ulertzen dela adierazi, argibideak eskatu, beste baten hitzak erabili, nork bere burua zuzendu, baieztatu.
- Ulertu ez duen kide bati zerbait azaldu edo itzuli.
- Ondo ulertu ote den galdetu.

Informazio orokorra

- Beste pertsona batzuen gaineko informazioa eman eta eskatu (adina, egoera zibila, nazionalitatea, lanbidea, telefono zenbakia, helbidea, posta elektronikoa, trebetasunak, gustuak, zaletasunak)
- Ordutegi, salneurri, data, janari, toki (eskola eta bizilekua) kantitateak, objektuak eta jardueri buruzko informazioa eman eta eskatu.
- Objektuak, pertsonak eta lekuak identifikatu.
- Gauzaren bat zeinena den galdetu edo esan.
- Pertsonak eta aldarteak deskribatu.
- Azaldu gauzak noiz eta non gertatzen diren.
- Eguneroko edo oraingo jardueri buruz hitz egin.
- Iraganeko jardura edo egoerei buruz hitz egin.
- Iraganeko eta oraingo ekintzak erlazionatu.
- Asmo eta proiektuei buruz hitz egin.
- Pertsona, objektu (jantziak, altzariak, etxe bat eta bere gelak), egoerak eta ekintzak deskribatu.
- Eguraldiari buruz hitz egin.
- Gauzak kokatu eta lekutu espazioan (etxean, ikasgelan, hirian)
- Zerbait edo norbaiten gertutasun edo urruntasuna adierazi.
- Asmatutako edo gertaturiko pasadizo bat kontatu edo berorri buruz galdetu.
- Nork bere burua zuzendu, zalantza agertu.
- Gerta litezkeen edo gertatuko direnei buruz hitz egin.
- Azalpen batean enumerazio bat egin.
- Informazioa errepikatu eta igorri.
- Informazio baten nondik-norakoak argitu (zergatia, ondorioak, baldintzak)

- Laburpenak egin (pelikula edo liburu bat)
- Definizioak egin.
- Zerbaiten gainean ezjakintasuna edo ezagutza erakutsi.
- Aurrikuspenak eta iragarpenak egin.
- Asmoak adierazi, hitza emon.
- Pertsona, gauza edo gertaerei buruz hipotesiak egin.
- Denboraren segida ondo adierazi.
- Informazioa emon.

Iritziak eta balioespenak

- Galderak egin eta ezagutza edo ezjakintasuna adierazi.
- Pertsona, objektu, leku, egoera eta egintzak alderatu.
- Zalantza adierazi.
- Adostasuna edo ezadostasuna adierazi, erabatekoa edo partziala.
- Ideia edo proposamen baten alde edo kontra jarri.
- Zaletasun, gustu, lehentasun eta interesei buruz galdetu eta berauek adierazi.
- Zalantza, ziurtasuna, harridura, pena, axolagabetasuna adierazi.
- Iritzi edo jarduera bat justifikatu.
- Zergatiak, helburuak eta ondorioak adierazi.
- Zerbait egiteko baldintzak formulatu.
- Egintza bat balioetsi (egintza erraza edo gertagarria)

Osasun egoera, sentsazioak eta sentimenduak

- Sentsazio fisikoei buruzko informazioa eskatu eta eman (hotza edo beroa, logura, gosea, egarria, zaporea, ongizatea edo ondoeza)
- Onera edo txarrera egitea hitzez adierazi.
- Aldarte eta beronen zergatien gaineko informazioa eman edo eskatu: asperdura, gogobetetzea edo atsekabea, miresmena, interesa, poza, etab.
- Sentipenak adierazi: harridura, poza, pena, kezka, nahigabea, beldurra.
- Beste inoren sentipenen aurrean modu egokian jokatu.

Eskaerak, argibideak eta iradokizunak

- Objektu eta zerbitzuak eskatu eta eman, onartu eta errefusatu.
- Aholkuak eskatu eta eman, agindu.
- Zerbait egiteko baimena emon edo emon ez.
- Laguntza eskatu, emon, onartu eta errefusatu.
- Zerbait egiteko beste inor berotu.
- Ohartarazi eta jakinaren gainean jarri.
- Instrukzioak eskatu eta emon (helbideak, toki batera heltzeko argibideak)
- Laguntza eskatu.
- Zerbait egiteko asmoa edo nahiari buruz informazioa emon eta eskatu.
- Zerbait egiteko posibilitatea, ezintauna edo beharra adierazi.
- Debekuak adierazi.
- Egitekoak iradoki eta beste inoren iradokizunen aurrean jarrera bat hartu.
- Hitzordua jarri, beste inorekin geratu.
- Telefono bitarteko elkarrizketak burutu (Hizketan hasi, norbaitetaz galdetu, solaskideari itxaroteko esan, ulertzen edo aditzen dela adierazi, agur esan...)

Diskurtsoaren antolamendua

- Norbaitengana zuzendu.
- Diskurtso bat hasi eta bukatu.
- Gaia atera.
- Elkarizketa edo eztabaida antolatu: iritzia eman, adibideak jarri, zerbait azpimaratu (doinua, hitzen ordenamendua), nork bere burua zuzendu, zalantza adierazi, laburtu, gaia aldatu.
- Lagundu interakzioan: iritzia eskatu, gaia aldatzeko eskatu, txanda eman, besteei hitzegiten utzi.

- Interakzioan jarrera bat hartu: diskurtsoaren haria jarraitzen dela erakutsi, besteren bati hitza kendu.
- Diskurtsoaren atalak erlazionatu.
- Diskurtsoari kohesioa eman (denbora aldetikoa, hariari jarraitu alferreko errepikapenik gabe.)
- Telefonoz hitz egin: erantzun, baten batengatik galdetu, itxaroteko eskatu, galdetu ea entzuten dizuten, aditzen ari zarela adierazi.
- Dagokion egitura eta formalitate edo informalitate maila erabili gutun eta mezuetan.
- Esku artean darabiltzagun testu/diskurtsoen konbentzioak erabili.

Nolako testuak irakurtzen dira?

Atazak egitean, testuak helburu zehatzak lortzeko asmoz irakurtzen dira.

- Sentimenduak, erreakzioak, esperientziak, interesak eta informazioa trukatzeko gizarte izaera duten edo norberarekin lotuta dauden mezuak: SMSak, posta elektronikoak, gutunak.
- Gutun formal errazak.
- Ohiko gaien inguruko galdeketak eta inprimakiak.
- Bere gustuko gaien eta eguneroko jardueren inguruko oharra eta mezuak.
- Gizarte izaera duten testu ezagunak: zorientzekoak, gonbidatzekoak, onartzekoak, uko egitekoak, eskertzekoak, zerbitzu bat eskatzekoak, barkamena eskatzekoak.
- Azalpena eta informazioa ematen duten txostenak.
- Seinaleak eta errotuluak.
- Lan iragarkiak.
- Jarraibideak eta erabilpen arauak.
- Abisuak eta berri emate publikoak.
- Prospektuak.
- Posterrak eta iragarkiak.
- Esku-paperak, merkataritza eta turismo aurkitegiak.
- Prezio zerrendak.
- Ordu-tegiak.
- Mapak, fakturak, txartelak eta antzerki, zinema, telebista eta irrati programazioak.
- Txosten konbentzionalak (egiunezkoak).
- Hiztegi, katalogo, agenda, aisi aurkitegi eta telefono zerrendak.
- Web orriak.
- Errezetak.
- Egunkariak eta aldizkariak: albisteak, artikulua ez espezializatuak, erreportajeak, elkarrizketak, iritzi artikulua, "zuzendari gutunak".
- Komikiak erregistro estandarrean.
- Olerki errazak.
- Biografiak.
- Abestien letrak.
- Horoskopoa.
- Nobela eta ipuin mailakatuak.

Nolako testuak entzuten dira?

Atazak egitean, testuak helburu zehatzak lortzeko asmoz entzuten dira.

- Aurrez aurreko izaera informaleko elkarrizketak.
- Egunerokoan izaera formaleko elkarrizketak.
- Informazio truketzeak.
- Transakzioak informazioa, ondasunak eta zerbitzuak eskatzeko eta emateko eta baita arazo jakinak (deboluzioak, erreklamazioak, administrazio eta merkataritzako tramiteak) bideratzeko ere.
- Deskripzioak eta narrazioak.
- Elkarrizketa eta talde batzarretako elkarrekintzak.

- Gaur egungo kultura eta albiste mintzagaien inguruko iruzkinak eta iritziak.
- Norbere esparruari dagozkion azalpen eta mezuak (bakoitzaren informazioa, klaseak, ikasketak, lana, aisia eta beharrianak).
- Familiako gora-beheren inguruko eztabaidak hizkuntza estandarrean.
- Jarraibideak, aholkuak eta azalpenak.
- Aurkezpenak eta testuingurudun deskripzio eta narrazio errazak.
- Mintzagai ezagunen inguruan argi mailakatutako hitzaldi eta konferentziak.
- Kirol gertaera, kontzertu, hegaldi, aireportu eta geltokietako informazioa eta berri emate publikoak.
- Erantzungailuak.
- Osasun zerbitzuak, orduak, trafikoa eta eguraldiaren inguruko telefono informazioa.
- Eguraldi albistegiak.
- Turismoaren inguruko informazioa.
- Iragarki testuak irratian eta telebistan.
- Lehendik ezagunak diren albisteak.
- Iragarkiak eta eskaintzak dendetan.
- Irrati eta telebista programak hizkuntza ikasten ari direnentzat.
- Abestiak.

Nolako testuak ekoizten dira?

Atazak egitean, testuak helburu zehatzak lortzeko asmoz ekoizten dira.

Berba egiteko

- Eguneroko harremanetakoak (agurrak, aurkezpenak, barkamenak, eskerrak erakutsi) eta une berezietakoak (goraipamenak, konplimenduak)
- Zorionak ematea, gonbidapenak, gurariak, jarduera proposamenak.
- Aurrez aurreko izaera informaleko elkarrizketak.
- Egunerokoan izaera formaleko elkarrizketak.
- Informazio trukatzeko: norberarena, zaletasunak, interesak, iritziak, ekintzak, kopuruak, prezioak, datak, orduak, kokalekua.
- Transakzioak informazioa, ondasunak eta zerbitzuak eskatzeko eta emateko eta baita arazo jakinak (deboluzioak, erreklamazioak, administrazio eta merkataritzako tramiteak) bideratzeko ere.
- Narrazio, deskripzio eta mezuak igorri eta errepikatu.
- Elkarrizketa eta talde batzarretako elkarrekintzak.
- Aurretik prestatutako mahai-inguruak.
- Gaur egungo kultura eta albiste mintzagaien inguruko iruzkinak eta iritziak.
- Ulermena kontrolatzeko, elkarrizketa bat hasteko, amaitzeko edo jarraitzeko eta gaia aldatzeko formak.
- Mezua argitu, itzuli edo berari buruz azalpenak.

Idazteko

- Sentimenduak, erreakzioak, esperientziak, interesak eta informazioa trukatzeko gizarte izaerako edo norberarekin lotutako mezuak: SMSak, posta elektronikoak, gutunak.
- Gutun formal errazak.
- Ohiko gaien inguruko galdeketak eta inprimakiak.
- Bere gustuko gaien eta eguneroko jardueren inguruko oharra eta mezuak.
- Ohiko esamoldeak dituzten testu sozialak: zorientzekoak, gonbidatzekoak, onartzekoak, uko egitekoak, eskertzekoak, zerbitzu bat eskatzekoak, barkamena eskatzekoak.
- Azalpen eta informazio izaera duten txostenak.
- Eskolako egunkari eta aldizkarietarako beretzat interesgarriak diren gaien inguruko artikulua labur eta errazak.
- Jatorri ezberdineko edukien laburpenak.
- Txosten laburrak ohiko gertaerei buruz.
- Jardueren inguruko kontakizun laburrak.

- Gustatzen zaizkion eguneroko gaien inguruko deskripzio errazak.
- Gertaera ezagun baten deskripzioa.
- Asmatutako narrazio errazak.
- Hitzarmenen eta plangintzen inguruko deskripzioak.
- Biografiak.
- Curriculum vitae.
- Errezetak eta jarraibideak.

Zer gai jorratzen dira?

- Nork bere burua ezagutu eta aurkeztu.
- Etxebizitza, hiria eta ingurua.
- Eguneroko jarduerak.
- Aisialdia
- Bidaiak.
- Giza-harremanak eta gizarte-harremanak.
- Osasuna eta gorputzaren zaintzak.
- Hezkuntza.
- Erosketak eta jarduera komertzialak.
- Elikadura (Janaria)
- Zerbitzuak.
- Hizkuntza eta komunikazioa.
- Eguraldia, aroa eta inguramena..
- Zientzia eta teknologia.

Zer gaitasun behar dira jarduera komunikatiboak burutzeko?

Gaitasun pragmatikoak

Egoerara egokitzea: erregistroa

- Mezua ulertzeko eta sortzeko, testuingurua kontuan hartzea.
- Ideia esanguratsuenak bereiztea. Komunikazio-asmo, gai aldaketa, iritzi ezberdintasun, komunikazio-truke edo testuen detaileak atzematea.
- Komunikazio-asmoa nahiko zehatz bideratzen du: informazio zehatza helarazi, garrantzitsuenaz azpimarratu. Hau batzuetan ohikoak ez diren egoeratan edo zailtasunak daudenetan gertatzen da. Gaiak abstraktuak direnean, egokitzapenak behar izaten ditu eta emaitza ulergaitzagoa izan liteke.
- Erregistroa, trataera, adierazpideak, jarrerak, distantzia, mugimenduak eta ahotsaren tonua testu motara, berbalagunetara, komunikazio- kanalera eta lekura egokitu.

Ideien koherentzia eta antolaketa testu mota kontuan hartuta

- Xede-kulturan eta hizkuntzan elkarriketa nola egiten den jakitea eta norberak egitea. Agurra, hasiera, gaien sarrera, erreakzioa, berba egiteko txandak, gai aldaketak, etenak, ondorioak eta amaiera.
- Ideiak koherentzian oinarrituta antolatu, arrazoirik gabe ez atzera saltorik egin.
- Kontuan hartu denbora, leku eta logika progresioak (gaia-iruzkina, zergatia-ondorioa, baldintza-gauzatzea, tesia-argudioak, ondorioa)
- Aurrean dagoen edo sortu behar den testuaren ezaugarriak, antolaketa eta formatua ezagutu. Ondoren horretara moldatu (gutunak, elkarrekintzak, esku-paperak, oharrak, aurkezpenak)

Konexio eta erreferentzia baliabideak. Etorria:

- Elkarriketak eta mintzaldiak egiteko eta amaitzeko baliabide egokiak zeintzuk diren jakin. Ondoren , komunikazio-trukean berbetan hasi eta erabili egin behar dira. Berdin berbalaguna inplikatzeko, norbere inplikazioa adierazteko, ulermena kontrolatzeko, laguntzeko edo erreakzionatzeko.

- Hartutako edo sortutako testuetan, atzeman eta erabili gehien erabiltzen diren antolatzaileak. Kontuan hartu testuaren zati bakoitzak eskatzen duen doinua (hasieran, jarraian, sailkapenetan, argudioetan, adibideetan, enfasetan, birformulazioetan, laburpenean, ondorioan, gai aldaketan, amaiera iragartzean).
- Toki adierazpide egokiak sartu eta mezuaren testuingurua argitu.
- Errepikapenak saihestuz, informazioari berriro ekiteko baliabide egokiak (elipsiak, izenordainak, anaforak, aditzondoak...) hautatu behar dira lehengoan ordez erabiltzeko.
- Testu antolatzaileei eta puntuazioari garrantzia eman eta malgutasunez erabili.
- Denbora koherentzia zaintzeaz arduratu.
- Maila honetako testuen ulermenean trebatu, eta horretarako estrategia egokiak erabili.
- Eguneroko bizitzako harremanetan eta beste era batekoetan erraz moldatu. Oztupoak norbere kabuz aurrera eginez gainditu.
- Egokitu bakoitzaren baliabideak egoera berrietara eta lotu elkarren artean esaldiak testu malguak sortzeko.

Gaitasun soziolinguistikoa

Hizkuntzaren erabilerarekin batera doaz berau ezagutzea, ulertzea eta bere gizarte izaera praktikan ipintzea. Gizarte eta kultura aldetik (ordutegiak, jokamoldeak, aisialdiko jarduerak, ospakizunak, gizarte mailak, historia...) datozen baloreak, sineskerak eta jokamoldeak errealitatea pentsatzeko eta egiteko modu ezberdinak daudela adierazten dute. Hauek ezagutzeak kulturarteko aberastasuna emateaz gain, xede hizkuntzako herrialdean bertakoekin egiten diren harremanak nondik norakoak izan behar duten argitzen du.

Harreman sozialak: formaltasuna, distantzia eta hierarkia

- Gizarte jokamolde egokiak erabili, egoera berezietan ere bai.
- Norberaganatu xede kulturaren jarrera (postura, begirada, distantzia, eguraldiaren inguruko galderak, isiluneak) eta hizkuntza hango pertsona ezezagunekin dagoenean.
- Norberaren kulturakoak ez diren keinuak ezagutu eta erabiltzen jakin.
- Laguntza keinuak, adetasun keinuak (bostekoa eman, musuak, distantzia, begietara begiratu edo ez) eta soinuak atzeman eta era horretako jokamoldeetara egokitu.

Hizkuntza estandarra eta aldaerak

- Bereiztu egoera formala eta informala eta kultura horretan ohi denez jokatu (erritoak, ofizialak, partikularrak, formalak, informalak).
- Hizkera idatzia eta mintzatua bereiztu eta ezberdintasunak bakoitzari dagokionean aplikatu.
- Lagunarteko hizkerako esapideak atzeman eta testuinguru egokian erabili (ahoz, idatzita, SMSetan, chat-etan)

Kultura erreferenteak

- Esapide batzuen bitariko esanahia eta esangura gordina ezagutu.
- Denbora esapideen zehaztasuna edo beronen gabezia ezagutu.
- Beste kulturaren mingarriak edo tabuak diren hizkuntza formak ezagutu.
- Erreakzio barregarriak edo mespretxuzkoak sortzen dituzten interferentziak ezagutu.
- Ohiko esaera eta esapideen esangura ezagutu.
- Pertsonen eta gertaeren inguruan askotan erabiltzen diren esapideen esanahia ezagutu.

Gaitasun linguistikoa

Gramatika, ortografia eta fonologia gaitasunak berbalagunak elkarrekin komunikatzeko bitartekoak dira. Euren erabilera eskatzen duten atazak eginez ikasten dira.

Jarraian zehaztuko diren baliabideon bitartez (Oinarrizko Mailan programatutakoekin batera), betiere testuinguruaren arabera, burutu ahal izango dira mailari dagozkion ataza eta komunikazio funtzioak.

Gramatika

- **Perpaua**

- Perpaua motak:
 - ✓ Galde perpauak *norako*, *norentzako* galdetzaileekin (*Norako bidea hartu zenuen?*, *Norentzako kalte?*).
 - ✓ Aginte perpauak.
 - ✓ Harridura perpauak:
 - *ze(r)*, *zein* galdetzaileekin (*Ze gaizki egin duzun!*),
 - *nolako/zelako* galdetzaileekin (*Nolako itxura duzun!*).
 - Interjekzioak (*Arraioa!*, *Alde!*).
 - ② *bai* (*Bai zaila dela ariketa hau!*)
 - ② Erakusleak (*Hau zorte txarra!*)
- Perpauaren intonazioa.
- Perpauaren osagaien ordena, berau markatua denean:
 - ✓ Izena + aditza (*Idazkariak eman dit papera*)
 - ✓ Izenordea + aditza (*Neuk eman nion*)
 - ✓ Erakuslea + aditza (*Hauxe da erosi nahi dugun etxea*)
 - ✓ Adberbioa + aditza (*Hantxe ikasi nuen nik ere*)
 - ✓ Aditza + aditza (*Erregalatu egin di!*)
 - ✓ Baieztapena + aditza (*Badakit zein den*).
- Subjektu – predikatu – atributu – komunztadura:
 - ✓ Aditzarekin komunztaduran datozen elementuen elipsia: ([zuk] [nir] [partiturak] utzi zenizkidan).
 - ✓ Zalantzazko aditz jokoak: *begiratu, deitu, eragin, gonbidatu, itxoin...*
- Perpau inpersonalak (*Hemendik oso ondo entzuten da; Zarata honekin ezin da lorik egin*)
- Elementuen eta perpauaren arteko alborakuntza:
 - ✓ Emendiozkoa:
 - *bai...bai* (*Bai larunbatean bai igandean kanpoan bazkalduko dugu*),
 - *ez...ez* (*Ez azaroan ez abenduan ez du euririk egin*),
 - *ez bakarrik...ere* (*Ez bakarrik Jon, beste guztiak ere galdu dira*),
 - *dela...dela* (*Dela oinez, dela bizikletaz, ederra da mendian ibiltzea*).
 - ② *...ezezik, ezeze...ere* (*etxean ezezik, kalean ere horrela portatzen da*).
 - ② *Zein...zein* (*zein kotxez zein trenez, ordu beretsuan iritsiko gara*).
 - ② *Nahiz...nahiz* (*nahiz hau nahiz bestea, hartzten duzuna hartuta, gustura ibiliko zara*).
 - ✓ Aurkaritzakoa:
 - *baizik, baino* (*Ez dago etxean, bulegoan baizik*).
 - ② *Alde batetik...bestetik...* (*alde batetik interesgarria dirudi, bestetik garestiegia da*).
 - ✓ Lokailuen erabilera:
 - ② *Ere, ere bai, baita ere...*
 - ② *Elkar*.
- Menperakuntzakuntza:
 - ✓ Erlatibozko perpauak:
 - *-(e)n* + kasu marka (*Ez gehiegi fidatu hitz egin digunarekin*).
 - *-tako/-dako* (*goizean erositako ogia*).
 - ✓ Perpau osagarriak:
 - *-(e)la* (*Ziur nago lortuko duzula*).
 - *-(e)nik* (*Ez dut uste etorriko denik*).
 - *-(e)na* (*Argi dago hori horrela dena*).
 - ✓ Perpau kontzesiboak:
 - *nahiz eta* + partizipio (*Nahiz eta ikasi*).
 - *arren* + partizipio (*Etorri arren*)
 - ② Jokatu gabeko aditzekin: *...-ta ere* (*Mesedez eskatuta ere, ez zituen gauzak berehalakoan uzten*).

- ② Jokaturako aditzekin: ...-(e)n arren (Galdu dugun arren, ez gaude haserre); nahiz eta ...-(e)n (Nahiz eta urruti utzi gaituen, garaiz iritsi gara); ba-... ere (Gaixorik bazegoen ere, umore ona zuen).
- ✓ Honako konparaziozko perpausok:
 - *bezain* (*Etxean bezain ongi nago hemen*)
 - *bestean* (*Amak bestean ondo egin duzu pastela*)
 - *besteko* (*Joana gizonak besteko indartsua da*)
 - *adina* (*Txoriek adina jaten du*)
 - *beste* (*horrek guk beste daki*)
 - *bezala* (*Aingeruak bezala mintzaten da*)
 - *moduan* (*Bertakoen moduan egiten du ingelesez*)
 - *bezalako* (*Zu bezalako emakumerik ez dut ezagutu*)
 - *moduko* (*zure moduko ikaslerik ez dago*)
 - *honen, horren, hain, honenbeste, horrenbeste, hainbeste* (*hain urruti, hainbeste jende*).
 - ✓ Baldintzazko perpausak:
 - Aditza jokaturata (*ikusi(ko) banu, ezagutuko nuen* (*ezagutuko nuke*))
 - Aditza jokatu gabe:
 - (e)z gero (*Nahi izanez gero*)
 - t(z)ekotan (*Inori ez kontatzekotan, sekretu bat esango dizut*).
 - ✓ Kausazko perpausak:
 - Aditza jokaturata: - (e)nez gero (*Ezertarako behar ez nuenez gero, bota egin nuen*); zeren eta ze loturak (*Ez egin kasurik, ze zoratuta dago*); eta (*Ez da joango, berandu da eta*)
 - Aditza jokatu gabe: - t(z)eagatik (*Korrika ibiltzeagatik gertatu zaizu*); - t(z)earren (*Zenbat emango dizute hori garbitzearen?*).
 - ✓ Helburuzko perpausak:
 - t(z)eagatik (*Zu ikusteagatik etorri naiz*);
 - t(z)earren (*Lehenbailehen bukatzearen egin ditu gauzak horrela*);
 - t(z)en/- t(z)era (*azterketa egiten joan dira*)
 - ✓ Denborazko perpausak:
 - aurrekotasuna: partizipioa + *aurretik, baino lehen*; - t(z)erakoan
 - berehalakotasuna: partizipioa + *orduko, partizipio + bezain laster, - takoan* (*Kalera ateratakoan hasi zuen euria*).
 - gerokotasuna: partizipioa + *eta gero, ondoren, ostean, - (e)netik*;
 - aldiberekotasuna: - (e)la, - t(z)ean
 - iraupena: (*bitartean, harik eta... arte*).
 - ✓ maiztasuna: ...-(e)n *bakoitzean, guztietan, gehienetan*.
 - ✓ Moduzko perpausak:
 - - (e)n bezala / - (n) bezalakoa: *nahi duzun bezala / nahi duzun bezalakoa*
 - - (e)n moduan / - (e)n modukoa: *utzi dagoen moduan / dagoen modukoa*
- **Deklinabidea**
 - Izen bizidunak eta bizigabeak; izenordainak, erakusleak eta leku-izenondoak.
 - Kasuak:
 - ✓ Ergatiboa, *nork/zerk*, mugagabea (*Adiskide batek eman dit*).
 - ✓ Absolutiboa, *nor/zer*, mugagabea (*Zenbat behi erosi dituzte?*).
 - ✓ Datiboa, *nori/zeri*, mugagabea (*Zein langileri gertatu zaio?*).
 - ✓ Jabego genitiboa, *noren*, mugagabea (*Zenbait adiskidderen aholkua*).
 - ✓ Leku genitiboa, *nongo*, mugagabea (*Zein etxetako atezaina?*).
 - ✓ Inesiboa, *non/norengan*, singularra eta plurala (*herrian, herrietan / amarengan, izebengan*).
 - ✓ Adlatiboa, *nora/norengana*, singularra eta plurala (*kalera, kaleetara / lagunarengana, lagunengana*).

- ✓ Muga-adlatiboa, *noraino / norenganaino*, singularra eta plurala (*teilaturaino / zuzendariarenganaino*).
 - ✓ Ablatiboa, *nondik / norengandik* singularra eta plurala (*zelaitik, zelaietatik / auzokoagandik, etsaiengandik*).
 - ✓ Destinatiboa, *norentzat*, singularra eta plurala (*umearentzat, umeentzat*).
 - ✓ Sozietatiboa, *norekin*, singularra eta plurala (*saguarekin, saguekin*); nogaz (*umeagaz, umeakaz*).
 - ✓ Hurbiltze-adlatiboa, *norantz / norenganantz*, singularra eta plurala (*etxerantz, etxeetarantz, lagunenganantz*).
 - ✓ Motibatiboa, *norengatik*, singularra eta plurala (*zugatik, aitarengatik*).
 - ✓ Instrumentala, *zerez*, singularra eta plurala (*makinez, egurrez*).
- **Izen sintagma**
 - Izena
 - ✓ Izen motak: elkartuak (seme-alabak, arrain zopa, negu giroa).
 - ✓ Generoa: kasu bereziak (mais/maistra, printze/printzesa); ohiko elkarketak (aita-amak, seme-alabak, senar-emazteak).
 - ✓ Maila: absolutua (*mutil, andere*) eta erlatiboa (*mutikote, andereño*).
 - Determinatzaileak:
 - ✓ Artikuluak: zehaztuak (*-a/-ak/-ok*) eta zehaztugabeak (*bat, batzuk*).
 - ✓ Zenbatzaile zehaztuak:
 - Ehunekoak (*ehuneko bost*).
 - ② Zatikiak (heren bat).
 - ② Banatzaileak (-na: seina, bana).
 - ② Esamoldeak (bizpahiru, hoge(ren) bat, baten bat, gutxi gorabehera, botila bat ur).
 - Esamoldeak (bizpahiru, hoge(ren) bat, inguru, baten bat, gutxi gorabehera, botila bat ur)
 - ② Zenbatzaile zehaztugabeak (zenbait, horrenbeste, hainbat, ugari, makina bat, bete, -(r)en bat).
 - Izenaren osagarriak:
 - ✓ Izenlagunaren **osaera** berriak:
 - Izena + -ko (hitzeko gizona): izena + izenondoa + -ko (meritu handiko neska); zenbatzailea + -ko (bi urteko umea, hiru litroko ur-botila, egun osoko lana, zenbateko prezioa?, hainbat asteko atzerapenaz).
 - Deklinabide kasua + -ko: norako (Hondartzarako toaila), norentzako (Ilobentzako opariak).
 - ② norekiko (*kanpotarrekiko harremanak*).
 - ② norenganako (*zaharrenganako begirunea*).
 - ② norainoko (*hemendik aterainoko sugea*).
 - ✓ Osagarrien kokagunea: (kartoi lodiko kaxa; gazte prakamotza; bekain iletsudun agurea; agure bekain iletsua)
 - ✓ Izenondoaren graduatzaileak (nahiko atsegina, aspergarri samarra, oso baldarra, sano polita, ondo arin, gazitxoa). Errepika: txiki-txikia.
 - ✓ Konparaziozko graduatzaileak: -ago (txikiago, gutxiago, handiago, gehiago), bezalakoa.
 - ✓ Partizipioaz osatutako adjektiboak: (Kotxe lapurtu batean egin zuten ihes, egindako ahalegin guztia, amaitu gabeko ikasketak / garbitu bako gela).
 - ✓ Aposizioa (Asier, nirekin ateratzen zena, ezkondu egin da).
 - ✓ Erlatibozko perpausa nor, nork, nori kasuekin burutua (galdera egin zuena, mendian galdu zirenek, bost urte dituztenei, zauritutakoek erietxea utzi dute).
 - ✓ Esamoldeak: -arena egin (pailazoarena egin).
 - Izenordainak:
 - ✓ Bihurkariak (neure burua).
 - ✓ Galdetzaileak (nortzuk, zertzuk).

- ② Pertsona-izenordain indartuak: neu, heu, geu, zeu, zeuek; neure, heure, geure, zeure, zeuen.
- ② Erakusle indartuak: hauxe, horixe, huraxe, hauexek, horiexek, haiexek; bera, beraiek.
- ② Zenbatzaile orokorrak: dena, guztia.
- ② Elkarkariak (elkar, elkarri, elkarrekin, elkarrengana, elkarrengandik, elkarren).
- ② Zehaztugabeak (edonor, edonork, edonori... norbait, norbaitek, norbaiti... inor, inork, inori..., nor edo nor, zer edo zer, zein edo zein, nornahi, zernahi, zeinahi).
- ② Beste (beste liburua, beste liburu bat, beste inor / nor, besterik)

- **Aditz sintagma**

- Perpausaren osagarriekiko (subjektu - objektu zuzen – objektu datibo) komunztadura..
- Denbora: oraina, iragana eta geroaldia.
- Aspektuak: puntukaria, burutua, burutugabea.
- Aditz trinkoak orain aldia: nor-nork sistema: esan (di[n]ot, di[n]ozu...).
- Aditz trinkoak iraganean:
 - ✓ nor sistema: izan, egon, ibili, etorri, joan.
 - ✓ nor-nork sistema: ukan, eduki, jakin, eraman, ekarri.
- Aditz laguntzailea orain aldia eta iraganean:
 - ✓ nor-nori-nork (Irribarre egin zidan)
 - ✓ nor-nork (Ez ninduen agurtu).
- Adizkera inpersonalak: (Hemen ez zaigu/digute kasurik egiten; Eguberrietan asko edaten da).
- Jokatuak:
 - ✓ Partzipioak: –ta (Neke eginda heldu da), –(r)ik (asperturik zebiltzan)
 - ✓ Nominalizazioa: (ez da erraza problema konpontzea; holakorik ikusteak amorrua ematen dit; ez dago zurekin asmatzerik)
 - ✓ Perifrastikoak:
 - –t(z)ea gustatu, erabaki, ahaztu...
 - –t(z)en jakin, ikasi, lagundu...
 - –t(z)era behartu, ausartu, gonbidatu.
 - –t(z)eko prest egon, asmoa izan, gai izan.
 - –t(z)eari utzi, ekin.
 - ✓ Gerundioa: – t(z)en: (erortzen ikusi nuen); –z (eroriz ikasten da oinez); -ta (aspirina hartuta joan zait buruko mina); -la (eskua poltsa barruan duela harrapatu dute lapurra).
- ② Ahalera (orain aldia/leuna/iragana)
 - ✓ nor (etor naiteke / ninteke).
 - ✓ zer-nork (ikus dezakegu / genezake)
 - ✓ zer-nori-nork sistema: orain aldia (diezaioket).
- ② Baldintza, irreal / hipotetiko, eta ondorioa:
 - ✓ nor (-/ko banintz, -ko nintzateke/nintzen)
 - ✓ zer-nork (-/ko banu, -ko nuke/nuen)
 - ✓ zer-nori-nor (-/ko banio, -ko nioke/nion).
- ② Agintera: nor-nori nork (eman iezaiozu...)
- ② Subjuntiboa: erabilera handiko perpaus bakun eta mendekoak (etor dadila, egin dezala...) (nor, zer-nork eta zer-nori-nork sistemen orain aldia)
- Modalitatea:
 - ✓ Beharrezkoa (ezinbestekoa da, nahitaezkoa da...-t(z)ea)
 - ✓ Betebeharra (beharrezkoa duzu...-t(z)ea)
 - ✓ Ahal izatea (-t(z)eko gai izan, -t(z)ea izan)
 - ✓ Asmoa (-t(z)ekoa izan, -t(z)ekotan egon).
- Aditz lokuzioak:
 - ✓ izan (ahal, ezin, nahi, behar, balio, bizi, merezi... izan).
 - ✓ egin (hitz, lo, lan, amets, oihu, barre, negar... egin).
 - ✓ hartu (kontuan, hitza, parte, begitan, loak... hartu).
 - ✓ eman (hitza, denbora, amore, musu... eman).

- ✓ erabili (asmoa, buruan, ahoan... erabili).
- ✓ jo (adarra, begiz, larrua...).
- ② Derrigortasuna adierazteko esamoldeak:
 - ✓ –t(z)en/t(z)era behartu (hitz egitera behartu naute).
 - ✓ Eragin (barre eragin dit).
 - ✓ –arazi (ezkontarazi gaituzte).
- Partikula modalak:
 - ✓ al (Berak egin al zuen?)
 - ✓ ote (Berak egin ote zuen?)
 - ✓ omen/ei (Berak egin omen zuen)
- Ekintzen korrelazioa eta denbora – moduen komunztadura. Denboraren korrelazioa narrazioan (Etxera deitu du/zuen berandu datorrela/etorriko zela esateko).
- Osagaien ordena:
 - ✓ Galde perpausetan: galde izenordaina + aditza (zergatik egin duzu hori?;
 - ✓ Ezezko perpausetan:
 - ✓ Aditz trinkoekin: (IS) + ez + aditza + (IS) (nik ez dakit ezer).
 - ✓ Aditz perifrastikoekin: (IS) + ez + laguntzailea + (IS) + aditz nagusia (Jonek ez du lanik egiten).
- **Adberbioa**
 - Lekua, denbora eta modua adierazi.
 - ② Aditzondo eratorriak: –ki (biziki, automatikoki), -ka (keinuka, gordeka), ro (geldiro), -to (ederto), -(r)ik (osorik, hutsik).
 - Aditzondo eratorriak: –ki (biziki, automatikoki), -ka (keinuka, gordeka).
 - Kategoria aldaketak: izenondoa aditzondo (zikin dago; gogor aritu dira; zoaz azkar).
 - Gradua:
 - ✓ Erabateko ezeztapena: batere (ez dago batere pozik).
 - ✓ nahikotasuna: nahiko, aski, samar.
 - ✓ Maila gorena: oso, biziki, asko, izugarri, itzel.
 - ✓ Absolutua: erabat, guztiz, zeharo, sano.
 - ✓ Gehiegizkoa: -egi, lar, sobera.
 - ✓ Beste maila batzuk: erdi, benetan (erdi biluzik kaleratu zen; benetan ondo jo zuten pieza)
 - Galdetzailleetatik eratorritako adberbioak: inon, inongo, inondik, inola, inolako, nonbait, nolabait, edonon, edonola...
 - Jarreraren adierazpena:
 - Iritzia (nire ustez, bere iritziz).
 - Ziurtasuna (ziur asko, jakina!, noski, zalantzarik gabe).
 - Ziurtasunik eza (badaezpada ere).
 - ② Egiantzekotasuna (dirudienez, itxura denez, hurrean, antza, erregular).
 - ② Agiantasuna (agian, beharbada).
 - Esamolde adberbialak: batez ere, bat-batean, lehenengo eta behin, noizean behin, nire partez, hamaika bider, zoritxarrez,
- **Loturak**
 - Lokailuak:
 - ✓ emendiozkoak (baita ere, gainera, bestalde, behintzat).
 - ② Hautakariak (bestela, osterantzean, ezpabere, ostean).
 - ② Aurkaritzakoak (dena dela, hala eta guztiz ere, berriz, ordea, ostera).
 - ② Ondoriozkoak (beraz, orduan, hortaz, bada).
 - ② Kausazkoak (zeren, ze, izan ere)
 - Posposizioak
 - ✓ genitiboarekin: (noren) arabera, arte(an), aurka / kontra, aurrean, atzean / ostean, azpian, barruan / barnean, beharrean, bidez / bitartez, gainean, inguruan, menpe(an), ondoan, orde, parean, partez, truk(e)
 - ✓ datiboarekin: (nori) esker
 - ② Absolutuarekin edo partitiboarekin: (zer/zerik) ezean, faltan.

- ② Instrumentalarekin: (zerez) gain(era), bestalde(an).
- ② Inesiboarekin:(non) gora, behera, zehar, barrena.

- ② Aditz lokuzioak: begira, bila, eske, zain, so, jabe.
- ② Lexikalizazioa: mahainguru, jendeurreko, axolagabe...
- ② Adjetibazioa: Beharren arabera eskakizunak bideratuko ditugu
Posposizioen komuntadura: Trafikoa murriztearen alde ala aurka zaude?

Diskurtsoa

• Kohesioa

- Kohesio prozedurak:
 - ✓ Errepikak (Ez da ona haragia jatea, ez da ona gozoa jatea... zer jango dugu, ba?)
 - ✓ Ordezkatze prozedurak, erreferente argiekin: elipsia, izenordeak eta adberbioak edo esamolde anaforikoak (horixe, hantxe, berak, kontua da, zera ..., hau da...).
 - ✓ Baliabide lexikalak: sinonimoak (nagusi, buruzagi,...), ohiko kontzeptuen hiperonimoak (irratia, komunikabidea), hiponimoak (lehendakaria, presidentea, mandataria...), nominalizazioa.
 - ✓ Aditz denboraren koherentzia (bihar bukatzeko asmoa zutela esan zuen / bihar bukatzeko asmoa dutela esan zuen)

• Antolakuntza

- Ohiko esamoldeak:
 - ✓ norbaitengana zuzentzean (aizu, jaun-andreok, lagunok)
 - ✓ agurtzean (egunon guztioi)
 - ② hasieran (hasteko, lehen-lehenik, hitzaldi honen helburua, ezer baino lehen, bazen behin, ...)
 - ② mintzakidea murgilarazteko (zein da zure iritzia?, zer deritzozu?)
 - ② adostasuna adierazteko (ni ere ados nago, neu ere bat nator)
 - ✓ iritziak ematean (nik esango nuke)
 - ✓ elkarreraginean (arrazoi duzu)
 - ✓ mintzakidea murgilarazteko (zein da zure iritzia?)
 - ✓ adostasuna adierazteko (ni ere ados nago)
 - ✓ hitza hartzeko (axola ez bazaizu)
 - ✓ azalpenak ematean (hara, begira)
 - ✓ laguntza eskatzerakoan (lagunduko didazue?)
 - ✓ eskertzeko (mila esker, ez dago zergatik)
 - ② amaiera prestatzeko (bukatzeko, hitz gutxitan, laburtuz)
 - ② agurtzeko (besterik gabe, ...-lakoan)
- Eguneroko harreman eta egoeretan izan ohi diren elkarreragiteak: galdetu-erantzun, eskaini-onartu (errefusatu), eskatu-eman, laudorioak bota-garrantzia kendu...

• Konexioa

- Antolatzaileak:
 - ② hasiera (egun hartan, gizona mundura baino lehen, lehenengo eta behin)
 - ② garapena (era berean, hariarekin jarraituz, hau ikusi eta gero, honetaz gain)
 - ② konklusioa (esandakoaren arabera, honen ondorioz, esanak esan, kontuan izanik...)
 - ② gai aldaketa (dena dela, edozein modutan ere, hori horrela izanik ere, gai hau albo batera utzita)
 - ② informazioa gehitu (gainera, are gehiago, bestalde, ez hori bakarrik).
 - ② sailkapena (alde batetik ... bestetik, arestian esan bezala, lehenik ... bigarrenik).
 - ② ziurtasun eza (dirudienez, omen, esan daiteke).
 - ② indartzea (berriro, berriz diot).
 - ② exenplutasuna (besteak beste, adibidez, esate baterako, hau da).
 - ② arrazoiketa (mila bider esana dugun bezala, hori horrela delarik, -(e)la kausa, beste era batera esanda).

- ② ezadostasuna (ez gaude ados, sentitzen dut baina ez nago konforme).
- ② azpimarratzea (onartu behar da, dudarik gabe, zer esanik ez).
- ② laburtzea (konklusio gisa, laburbilduz, hitz gutxitan esateko).
- Denbora eta espazioa mugatzeko antolatzaileak (orain dela ..., aurreko egunean, biharamunean, handik gutxira, bertan, dagoeneko, jadanik).
- Puntuazioa eta paragrafoak.
- Testu motaren araberrako formatua. Sailkapenak, erreferentziak, aipuak, azpimarrak...
- Intonazioa eta geldiuneak edo isiluneak.
- **Fokalizazioa:** galdegaia eta mintzagaia (ikus PERPAUSA: ordena)
 - Sintagmaren leku-aldaketa bidezko fokalizazioa: Irabazi, ez genuen ezer irabazi, baina ederto pasa genuen.
 - Zera lokailu fokalizatzailea: Zera esan behar dizut...
 - ② Esamoldeak: galdetzailea + geroaldia + eta (Nor etorriko eta Sabino)
- **Deixia**
 - Adierazpen modu ezberdinetan (elkarrizketa zuzenean, telefonoan, txatean, gutunean...) eta zehar-diskurtsoan eta narrazioan erabili beharreko elementu deiktikoak: izenordain, erakusle, eta leku-denborazko esamoldeen erabilera.
- **Kortesia**
 - Ekintza sozialetarako denbora eta esamoldeak (hasiko gara?, has gaitezen, hasi behingoz!).
 - Partehartze esamoldeak (bai noski!, ez ba!).
- **Inferentzia**
 - Esamoldeak egoeraren arabera hartzen duen esanahia (-Besterik? -Ez, hau da dena. -Gehiagorik ez? -Ez, mila esker, bete-bete eginda nago).

Lexikoa eta semantika

- **Hiztegia**
 - Ohiko esapide formal eta informalak zehaztutako egoera komunikatiboetarako.
 - Landutako gai eta egoeren inguruko hiztegi aldaerak (tokikoa / estandarra).
 - Erabilera zabaleko sintagma lexikalizatuak eta estereotipoak (adiskide mina, hasiera eman, abian jarri, bazterrak nahastu; zurrumurrua zabaldu...).
 - Sarri erabiltzen diren esamoldeak: argi eta garbi, kili-kolo, lur jota, urteak joan urteak etorri...
- **Hitzen osaera**
 - Eratorriak: des- (desegin) aurrizkia; -tasun (amatasun), -keria (zurikeria), -keta (azterketa), -te (eurite), -di (pinudi) atzizkiak.
 - Elkartuak: baba-lore, itsasgizon...
 - Maileguak: minigona, termometro...
 - Txikigarri eta handigarriak (umetxo, andereño, eskutzar, mutikote).
 - Nominalizazioa.
 - Sarri erabiltzen diren siglak eta laburdurak.
- **Esanahia**
 - Landutako gaiei lotutako eremu lexikalak.
 - Sinonimoak edo esanahi beretsuko hitzak.
 - Antonimoak.
 - Esanahi bikoitza edo anitza duten hitzak.
 - Hurbiltasun formalagatik nahasmena sor dezaketen hitzak.
 - Hitzen esanahia.
 - Hiztegiaren erabilera.
 - Kidetasun faltsuak edo inguruko hizkuntzekin sor daitezkeen interferentziak (xelebre, dotore...).

Fonologia eta ortografia

- **Fonologian:**
 - Bokalak eta kontsonanteak ezagutu eta ahoskatu.
 - Euskaltzaindiaren aholkuak: EBAZ (euskara batuaren ahoskera zaindua).

- Zailtasun handienak dituzten fonemak bereziki landu: Bustidura: in [ñ]: baina [baña], il [ill]: mutila [mutilla], is [ix]: isilik [ixilik]; z, s, ts, tz [x, tx]: zakur [txakur], itsaso [itxaso].
- Arreta jarri zailtasunak dituzten prozesu fonologikoetan. [Z]-k eragindako aldaketak: ez naiz [enaiz], ez zara [etzara], izanez gero [izanezker], hor zegoen [hortzegoen]...
- Sarri erabiltzen diren maileguen egokitzapena (funtzionario, denda), hasieran <r> (erlazio, Erroma, arratoi) dakartenak, eta bukaeran -(c)ión (informazio, kamioi) dutenak.
- Epentesia: bokalezkoa (Ixabelek); kontsonantikoa (hirurehun, lauretan).
- Ahostun bihurtzea: berrehun eta bost [berrehundabost].
- Elipsia: zer ordu da [ze ordu da]; Jon eta, ez dira etorri [Jon ta, eztira etorri].
- Doinu eta letren/zeinuen arteko korrespondentzia.
- Silabaren egitura eta banaketa.
- Euskal azentuaren berezitasunak hitzak deklinatzean: [la-gún / lá-gu-nak]. Azentua aditzetan: [i-ká-si / i-ká-si-kò]. Hitz markatuak: [ór-du, nés-ka, pí-su...]
- Intonazioa ereduak.
- Intonazioa landutako iharduera komunikatiboetan.
- Erritmoa.
- **Ortografian:**
 - Oinarrizko hiztegiaren ortografia zaindua.
 - Zailtasun handieneko fonemen transkribaketa: DD (onddo), LL (tortilla), RR (errota), TS (mahats), TT (pottoka), TX (txiki), TZ (hitz).
 - GE, GI, NP, NB grafiak menperatu.
 - Atzerriko izenen idazkera.
 - Maiuskulen erabilera.
 - Ortografia zeinuak: hitz elkartuen marratxo (seme-alabak).
 - Laburdura eta sigla erabilienak.
 - Puntuazio-markak: puntua, koma eta bi puntuen oinarrizko erabilera.

Zer estrategia erabiltzen da jarduera komunikatiboak burutzeko?

Hauxe esan nahi du *estrategia* berbak: Ikasleak buruko prozedurak aktibatzen dituela bere baliabide guztiak erabilia komunikazio eraginkorra lortzeko.

Jardueraren planifikazioa

- Entzun edo irakurriko dena aurreikusteko norbere ezagupen eta esperientziak aktibatzen dira.
- Edukia eta forma prestatzeko berbalagunak eta komunikazio-egoera aintzat hartzen dira.
- Testu mota desberdinen eraketa eta elkarrekintza kontuan hartzen dira.
- Mezua planifikatu egiten da, ideiak koherentziaz antolatzen dira.
- Formatua patxadaz gauzatzeko testu eredu ezberdinak behatzen dira.
- Zer baliabide dagoen aztertuta, mezua birmoldatu egiten da edo beharrezko baliabideak bilatzen dira.
- Berbaldia kohesionatzen laguntzen duten esaldiak eta hizkuntza formak gogoan izaten dira.
- Berbaldia antolatzeke antolatzailerekin aritu beharra aztertzen da.
- Mezu nagusiak komunikatzeko moduak aurreikusi eta landu egiten dira.
- Berbalagunek zer ezagutzen duten hartzen da aintzat.

Jarduera burutzeko

- Lehenengo, entzun edo irakurtzen denaren esangura nagusia eta asmoa ulertzeko ahalegina egiten da.
- Asmoari erantzuten dio ala ez argitzeko testua arakatu egiten da eta hala denean, datu zehatzak aurkitzen dira.

- Edukiaren berri ematen duten berba esanguratsuenak atzemateko adi egon behar da.
- Hipotesiak adieraziz eta kontrastatuz, apurka-apurka testuan dauden ideiak aurkitzen dira.
- Ohiko gaietan, berba ezezagundun perpausen esanahia ondorioztatu egiten da.
- Ulermena bizkortzeko elementu linguistikoak eta paralinguistikoak (irudiak, doinua, keinuak) hartzen dira kontuan.
- Ulermen hutsuneak testuinguruaren laguntzaz gainditzeko ahalegina egiten da.
- Hipotesiak egiaztatzeko berriro irakurri eta entzuten da.
- Irakurri, entzun edo ikasteen notak hartzen dira, azpimarratu egiten da, edo eskema bat eratzen da.
- Hitz ezezagunen edo zalantzan daudenen esanahia argitu gura izaten da:
 - Irudian, egoeran, beste hizkuntza batzuen ezagutzan eta ohiko ezagupenetan oinarrituta.
 - Esaldiaren edo testuaren esanahi nagusian oinarrituta.
 - Gramatika eta lexikoko giltzak (berba familiak, gramatika mailak, kokagunea...) kontuan hartuta.
 - Interferentzia eta nahaste kasuetan batez ere, lexikoa eta askotan agertzen diren moldeak ama hizkuntzan erabiltzen direnekin erkatzen dira.
- Azpimarratu, ezezagunak diren gako-hitzak idatzi eta ikasi, oinarrizko hitzen berba-zerrendak egin, lokailu-zerrendak idatzi... bezalako estrategiak erabiltzen ditu bakoitzak.
- Berba ezezagunen esanahiaren inguruko hipotesiak egin ondoren, hiztegia erabiltzen da.
- Elkarrizketa bat hasi, jarraitu eta amaitzeko esapide egokiak erabiltzen dira. Baita atentzioa eman, berba hartu eta txanda emateko ere.
- Adibideak jartzen dira, parafraasiak egiten dira, beste hizkuntza bateko berbak moldatu egiten dira, argi nabarmenduta kode aldaketak egiten dira, ohiko esamoldeak erabiltzen dira.
- Zailtasunak estrategia sozialak erabilia saihesten dira: berbalagunari laguntza eskatuz, hobeto ez hitz egiteagatik edo zuzenago ez idazteagatik barkamena eskatuz, galdera moldeak edo keinuak erabiliz, keinuz edo marrazkiz adieraziz...
- Elkarrekintzan parte hartzen da, beste batek esan duena errepikatu edo laburbildu egiten da eztabaida argitzeko.
- Esapideak koherentziaz lotu eta antolatzen dira.
- Hautatutako testu motaren ezaugarriak erabiltzen dira.
- Esapide berriak sortu gurean arriskuak hartzen dira.

Jarduera ebaluatu eta zuzentzeko

- Ondo ulertu den jakiteko kontrastatu eta egiaztatu egiten da.
- Zer ulertu ez den adierazi egiten da.
- Batzuetan norbere mezua argitu behar izaten da eta beste batzuetan aurrekoari berea argitzea eskatzen zaio.
- Berbak eta esapideak buruan eduki ondoren praktikan ipintzen dira erabilera egiaztatzeko.
- Txarto-adituak berbalagunen laguntzaz zuzendu egiten dira.
- Erabilitako badaezpadako moldearen egokitasuna aztertzea eskatzen da.
- Komunikazioa mozten denean beste era batera hasten da berriro.
- Hanka-sartzeen zergatiak aztertzen dira eta gainditzeko beste bide batzuk bilatzen dira.
- Elkar ulertzeko gaitasuna egiaztatu egiten da.
- Testuko ideiak era koherentean antolatuta eta lotuta dauden behatu ondoren eta eskatutakoari erantzuten dioten aztertu behar da.
- Hautatutako testu motaren ezaugarriak erabiltzen diren aztertu behar da.

4. EBALUAZIOA ETA ZIURTAGIRIA

Ebaluazioa ikaslearen ikas-prozesuko beste elementu bat da. Ebaluazio mota ezberdinak daude.

- **Diagnostikoa egitekoa:** ikasleak zer dakien zehazteko. Ikasturtea hasi baino lehen ikasleak autoubikazio proba egin lezake dagokion mailan kokatzeko.
- **Aurrerapena ebaluatzekoa:** ikasleak aurrera nola egiten duen ikusteko. Honetarako, autoebaluazioa egiteko eta bere burua zein mailatan dagoen ikusteko oso erabilgarria da Hizkuntzen Europako Portfolioa.
- **Jakintzakoa:** proposatutako helburuak bete diren egiaztatzeko. Europako Kontseiluak Erreferentzi Marko Europar Bateratuan proposatzen dituen helburuak trebetasun guztietan lortu dituen ikusteko. Helburuok, hizkuntzen ikaskuntzarako gaitasun linguistiko komunikatiboan oinarritutako ereduak agertzen dira.

Normalean, ikasturte erdirantza balio ofizialik ez daukan proba-eredu bat egiten da.

Oinarrizko Mailako eta Tarteko Mailako 1. Urratseko azken ebaluazioa sail bakoitzak erabakitakoaren arabera egingo da.

Oinarrizko Mailako 2. Urratseko azken ebaluazioa Jakintzakoa izango da eta ikasle ofizialei **Oinarrizko Mailari** dagokion ziurtagiria eskuratzeko aukera emango die. Hizkuntza batzuetan libreen deialdia Hezkuntza Sailaren erantzunaren zain dago.

Tarteko Mailako 2. Urratseko azken ebaluazioa Jakintzakoa izango da eta **Tarteko Mailari** dagokion ziurtagiria eskuratzeko aukera emango du. Irizpide espezifikoak, proben deskribapena eta ereduak beranduago agertuko dira.

Ziurtagiria eskuratzeko, ikasleak berariazko proba batzuk egin beharko ditu. Eurretan eskatutako ulertze-trebetasunak (ahozkoa eta idatzizkoa) eta adierazpen-trebetasunak (ahozkoa eta idatzizkoa) neurtuko dira eta emaitza "NAHIKO" edo "EZ NAHIKO" izango da. Objektibotasuna eta ikasle guztien aukera-berdintasuna bermatzeko, **proba hauek berdinak izango** dira Euskal Autonomia Erkidegoko HEO guztietan

TARTEKO MAILA

TREBETASUN BAKOITZA NEURTZEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

TARTEKO MAILA: 1. URRATSA

IDATZIAREN ULERMENA

Ikasleak ikasturteari dagozkion trebetasunak bereganatzen dituzenean, gai da:

- Gai ezagunen edo ikaslearekin zerikusia dutenen asmo komunikatiboa, ideia esanguratsuak, informazio garrantzitsua eta erregistroa -estandarren barruan-harrapatzeko. Gai hauen (hizkuntza ikasteko material egokiak, lan eskaintzak edo iragarkiak, liburuxka turistiko eta komertzialak, informazioak eta jarraibide errazak, berriak, informazio ez espezializatuak eta kontakizunak...) edukiaren inguruko hipotesiak egiteko.

AHOZKOAREN ULERMENA

Ikasleak ikasturteari dagozkion trebetasunak bereganatzen dituzenean, gai da:

- Egoeraz, testuinguruaz, ikusten denaz eta ezagutzaz baliatuta, ideia nagusiak eta komunikazio asmoak atzeman eta euren edukiaren inguruko hipotesiak egiteko. Argi eta erregistro estandarrean emateaz gain berriro entzun edo zalantzak argitzeko aukera duten testuak izango dira: elkarrizketak, informazioak, jarraibideak, azalpen errazak, mintzaldiak, eztabaidak eta kontakizun txikiak.

IDAZKETA

Ikasleak ikasturteari dagozkion trebetasunak bereganatzen dituzenean, gai da:

- Aurreikusitako funtzioak betetzeko, gai ezagunen inguruko testu errazak eginez: galdeketak, eskemak, eskutitz pertsonalak eta formalak, jarraibideak, testu sozialak, konpromisoak, lan eskariak, narrazioak, deskripzioak eta aurkezpen errazak.

MINTZAMENA

Ikasleak ikasturteari dagozkion trebetasunak bereganatzen dituzenean, gai da:

- Berbalagunen artean erregistro estandar formala zein informala erabiliz, modu eraginkorrean eta egokian parte hartzeko. Hau egingo du hainbat gai ezagunen ohiko jarduerarik gehienetan: informazio aurkezpenak, azalpenak, deskripzioak, narrazio errazak.

TARTEKO MAILA: 2. URRATSA

IDATZIAREN ULERMENA

Ikasleak ikasturteari dagozkion trebetasunak bereganatzen dituzenean, gai da:

- Gaia, ideia garrantzitsuenak, detaile nagusiak, argudioaren ildo nagusia eta ondorioak ateratzeko. Horretarako gaiak ezagunak edo ikaslearekin zerikusia dutenak izango dira: hizkuntza ikasteko material egokiak, lan eskaintzak edo iragarkiak, liburuxka turistiko eta komertzialak, informazioak eta jarraibide errazak, berriak, informazio edo iritzi artikulua ez espezializatuak eta kontakizunak.

AHOZKOAREN ULERMENA

Ikasleak ikasturteari dagozkion trebetasunak bereganatzen dituzenean, gai da:

- Edukiaren inguruko hipotesiak egiteko eta egoeraz, testuinguruaz, ikusten denaz eta ezagutzaz baliatuta, gaia, asmo komunikatiboak, ideia nagusiak eta detailerik esanguratsuenak atzemateko. Argi, nahikoa astiro eta erregistro formalean zein informalean baina estandarrean emateaz gain berriro entzun edo zalantzak argitzeko aukera duten testuak izango dira: elkarrizketak, informazioak, jarraibide errazak, azalpen zehatzak, albisteak, telefono mezuak, narrazioak, gai baten aurkezpenak, debateak, solasaldiak eztabaidak eta kontakizun txikiak.
- Modu estandarrean, astiro eta argi ahoskatutako gai ezagunei buruzko grabaketarik gehienak emandako informazioaren edukia ulertzeko. Telebistan gustuko dituen gaiak, elkarrizketak, hitzaldi laburrak, albiste programak...eta baita argi egituratuta eta ohi bezala egindako pekikulak ulertzeko ere

IDAZKETA

Ikasleak ikasturteari dagozkion trebetasunak bereganatzen dituzenean, gai da:

- Luzera eta mota ezberdinetako testuak idazteko ohiko gaien inguruan: norbere mezu eta eskutitzak, ohiko eskutitz formalak, galdeketak, txostenak, gertaera ezagunen edo asmatutako kontakizunak, deskripzioak, instrukzioak, eskariak, informazio eta iritzi aurkezpenak eta gai ezagunen inguruko argudioak

MINTZAMENA

Ikasleak ikasturteari dagozkion trebetasunak bereganatzen dituzenean, gai da:

- Egoera ezberdinetan eta gai ugariaren inguruan harremanak egiteko, iritziak eta informazio zehatza trukatzeko, esperientziak, sentimenduak eta gertaerak kontatzeko eta deskribatzeko, gai ezagun bat aurkezteko eta bere iritzien zergatiak adierazteko.

PROBAK: EGITURA ETA PROBAREN INGURUKO ZEHAZTAPENAK

TARTEKO MAILAREN (B1) ZIURTAGIRIA LORTZEKO PROBA.

PROBAREN HELBURUA

Probaren helburua da azterketariak komunikatzeko duen ahalmena eta hizkuntza erabiltzeko duen gaitasuna ebaluatzea.

Azterketariak, ohiko egoeretan, baita ez hain ohikoetan ere, elkarreraginean, informazioa jasotzen eta sortzen hizkuntza segurtasun eta malgutasun nahikoarekin erabiltzeko zer-nolako gaitasuna duen ebaluatzeko gaitasun-proba da. Gai orokorrei buruz edo nor bere intereseko gaiei buruz, ahozko testuak eta testu idatziak ulertzeko eta sortzeko gaitasuna agertu beharko du azterketariak, hizkuntza-baliabide errazen errepertorio zabala arrazoizko mailan menderatuz, hizkuntza estandarren aldaera formal eta informalean.

Tarteko Maila honen probaren mailak Europako Kontseiluaren B 1 mailaren eskumenak hartuko ditu erreferentziatzat, Hizkuntzen Europako Erreferentzia-Markoan maila hau zehazten den moduan.

Informazio gehiagorako ikus: Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskoletako Hizkuntzen Irakaskuntza Berezien Tarteko Mailari dagozkion Curriculuma: www.eoieuskadi.net

AZTERKETAREN DESKRIBAPENA, PUNTUAZIOA ETA ADMINISTRAZIOA

- Azterketak lau proba edo atal izango ditu: irakurritakoaren ulermena, entzundakoaren ulermena, idatzizko adierazpena eta ahozko adierazpena.
- Azterketaren iraupena: 2 ordu eta 50 minutu, honela banatuta: 2 ordu eta 30 minutu irakurritakoaren ulermenari, entzundakoaren ulermenari eta idatzizko adierazpenari dagozkion probetarako, eta 20 minutu ahozko adierazpenerako. Azken proba hori beste saio batean egingo da.
- Tarteko Mailari dagokion Ziurtagiria lortzeko, atal edo proba bakoitza gainditu beharko du azterketariak. Gutxieneko puntuazioa: azterketariak %60ko puntuazioa lortu beharko du gutxienez, bai idatzizko probaren osotasunean (irakurritakoaren ulermena, entzundakoaren ulermena, idatzizko adierazpena), hau da 60 puntutik 36, eta bai ahozko proban ere, 20 puntutik 12.
- Nolanahi ere, %60tik beherako puntuazioren bat orekatu ahal izango da idatzizko probaren atalen batean, baldin eta puntuazio txikiago hori atal bakar batean ematen bada eta gutxienez %50era iristen bada.
- Ahozko adierazpenaren atala ezingo da orekatu eta %60ko puntuazioa lortu beharko da gutxienez: 20 puntutik 12.

PROBAREN DESKRIBAPENA

IRAKURRITAKOAREN ULERMENA

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA, GUZTIRA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
3	20 puntu - %25	12 puntu	50 minutu

Helburuak	Testu-mota posibleak	Ariketa-mota posibleak
<p>Idatzi baten puntu nabarmenak bereiztea, baita ondorioak eta arrazoiak zein diren ere.</p> <p>Idatzi bat zehatz-mehatz ulertzea.</p>	<p>Mezuak (SMSak, posta elektronikoa, eskutitzak), bai izaera sozialekoak, bai pertsonalak, informazioa, interesak, bizipenak, erreakzioak eta sentimenduak elkarrekin trukatzeko</p> <p>Oinarrizko eskutiz formalak</p> <p>Informazioa helarazteko edo azalpenak emateko txostenak</p> <p>Lan-iragarkiak</p> <p>Erabiltzeko argibideak eta arauak</p> <p>Iragarki publikoak eta oharrak</p> <p>Prospektuak</p> <p>Publizitate-iragarkiak</p> <p>Liburuxka eta gida turistiko eta komertzialak</p> <p>Ohiko txostenak</p> <p>Aisialdirako gidak, katalogoak</p> <p>Web orriak</p> <p>Errezetak</p> <p>Egunkariak eta aldizkariak: erreferente ezagunak dituzten albisteak, espezializatu gabeko artikuluak, erreportajeak, elkarrizketak, iritzi-artikuluak, "zuzendariari eskutitzak"</p> <p>Biografiak</p> <p>Horoskopoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> erantzuna: aukera anitzekoak egia-gezurra informazio-transferentzia ordenan jartzeko lanak elkarrekin lotzea: (egoera edo epigrafe bakoitza idatzi batekin parekatzea / esaldi bakoitza zein testutakoa den aukeratzea) hutsuneak betetzea: (perpausak hutsuneetan txertatzea / zerranda edo sail batean emandako hitzekin hutsuneak betetzea, hitzak zenbakia duen laukitxo batera eramanez / testua osatzea, aukera egokiarekin hutsuneak betetz / testua osatzea, hitz bakar batekin hutsuneak betetz) erantzun bakarreko galdera irekiak

ENTZUNDAKOAREN ULERMENA

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA, GUZTIRA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2 edo 3	20 puntu - %25	12 puntu	40 minutu

Helburua	Testu-mota posibleak	Ariketa-mota posibleak
<p>1. Gai orokorreki edo nork bere interesekoei buruz argi eta modu estandarrean ahoz emandako testu gehienekoen edukiak ulertzea</p> <p>2. Erregistro estandarrean eta modu argian emandako eztabaida, hitzaldi eta parte-hartzeetako informazio zehatza eta xehetasunak ulertzea, nahiz eta saio luzeak izan, baita narrazioetan edo argibideetan emandakoak ere.</p>	<p>Aurrez aurreko elkarrizketa arruntak, informalak</p> <p>Elkarrizketa formalak, ohiko egoeretan</p> <p>Informazioa, ondasunak eta zerbitzuak eskatzeko eta emateko, eta arazo zehatzak konpontzeko transakzioak (administrazioko izapide errazak, erreklamazioak, itzulpenak)</p> <p>Mezu, deskribapen eta narrazioen transmisioa</p> <p>Taldeko bileretan eta elkarrizketetan elkar eragitea</p> <p>Gai ezaguneri buruzko eztabaidak hizkuntza estandarrean</p> <p>Kulturako edo gaurkotasuneko gai ezagunen inguruko iritzi, iruzkin eta arrazoitzeak</p> <p>Argibideak, aholkuak eta jarraibideak</p> <p>Aurkezpenak</p> <p>Gai orokorreki buruz argi eta garbi egituraturako hitzaldiak eta konferentziak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • erantzuna: aukera anitzekoak • egia-gezurra • informazio-transferentzia • testu zatiak (perpausak, hitzak,...) batzuk besteekin lotzea • ordenan jartzeko lanak • erantzun bakarreko galdera irekiak • oharren eskema: hutsuneak betetzea

IDATZIZKO ADIERAZPENA

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA	GUTXIENENKO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	20 (5 +15) puntu %25	12 puntu	60 minutu

Helburua	Testu-mota posibleak	Ariketak
1. Informazioa emateko, eskatzeko edo egiaztatzeke eta bizipenak, interesak, erreakzioak, sentimenduak edo gertaerak xehetasun nahikoarekin azaltzeko testuak idaztea, eta idatzian ustez garrantzitsuenak diren aldeak azpimarratzea.	<p>artikulu labur eta errazak ohiko gaien inguruan, eskolako egunkari eta aldizkarietarako</p> <p>ohiko gertaeren inguruko txosten laburrak gai zehatzen inguruko iritzia ematea</p> <p>jardueri buruzko kontakizun laburrak eguneroko gai, plan edo gertaera zehatzen inguruko deskribapen errazak</p> <p>eskutitz pertsonalak eskutitz formalak (lan-eskaerak, aurkezpen-gutunak, erreklamazio-eskutitzak)</p> <p>inprimakiak (instantziak, erreklamazioak, eskabideak)</p>	<p>testu motzago bati erantzunez edo argibideei jarraituz idaztea:</p> <p>intereseko gai baten inguruko artikulu samur bat eskolako egunkari eta aldizkarietarako eskutitz / mezu elektronikoko pertsonala / mezu elektronikoko formala eduki hauetakoren bat izan dezakeena:</p> <p>jardueren kontakizun laburra</p> <p>gai zehatz baten inguruko iritzia</p> <p>eguneroko gai baten inguruko deskribapen erraza</p> <p>gertaera zehatz baten (bidaia, etab.) inguruko deskribapena</p> <p>plan eta erabakien deskribapena</p> <p>180 hitz gutxi gorabehera</p> <p>PUNTUAZIOA : 15</p>
2. Argibideak eta informazioa ematea edo helaraztea.	<ul style="list-style-type: none"> • mezu elektronikoko laburrak • ohar eta iragarpen errazak, informazio, argibide eta jarraibideekin 	<p>Ohar, iragarpen edo mezu erraza, informazio zehatz eta jakinarekin</p> <p>80 hitz gutxi gorabehera</p> <p>PUNTUAZIOA : 5</p>

AHOZKO ADIERAZPENA

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA, GUZTIRA	GUTXIENENKO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	20 (8+12) puntu %25	12 puntu	20 minutu

Helburua	Testu-mota	Ariketak
<p>Modu laburrean azaldutako egoera, gertakari edo albiste baten aurrean informazioa adieraztea eta helaraztea.</p> <p>Ikuspuntua adieraztea.</p>	<p>Bakarrizketa, beste azterketari bati edo batzuei zuzendua</p>	<p>Emandako gaia (testu laburra, argazkia edo azalpenak dituen grafikoa...) entzun eta haren aurrean bere ikuspegia adierazi edo eman beharko du azterketariak beste azterketari mintzakideari/ei zuzenduz: zertaz ari den, zer planteatzen duen...</p> <p>Ariketa egiteko behar den informazioa ulertzeko denbora: 2 minutu</p>
<p>Iritziak, planak, adostasunak eta adostasunik ezak adieraztea eta horiei eustea, azalpen eta ohar egokiak eskainiz; bestelako aukerak alderatzea eta kontrastatzea.</p> <p>Ohiko gaien inguruko informazio zehatza jasotzea eta trukatzeko, nahikoa segurtasunez.</p>	<p>Beste azterketari batekin edo batzuekin elkarrizketa</p>	<p>Azterketariak elkarren artean hitz egingo dute, galderak egingo dituzte eta erantzunak eman, hitza hartu eta emango dute informazioa trukatzeko, ohiko gaien inguruko iritziak adierazteko, arazo baten arrazoiak azaltzeko, bestelako aukerak alderatzeko eta kontrastatzeko.</p> <p>Azterketariak orri, txartel edo fitxa bat jasoko dute. Han zehatuko da ariketa eta ariketa hori egiteko beharrezkoa den informazioa.</p> <p>Ariketa egiteko beharrezkoa den informazioa ulertzeko denbora: 2 minutu</p>

IDATZIZKO ADIERAZPENA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

IRIZPIDEAK	EBALUATUKO DA
Komunikatzeko egokitasuna eta eraginkortasuna	Ebaluatuko da <ul style="list-style-type: none"> • ulergarritasuna • ariketan eskatutakoa zenbateraino bete den • erregistro estandarrari –formalari eta informalari– hartzaileari, helburuari eta egoerari zenbateraino egokitu zaion
Lotura	Informazioaren eta ideien antolaketa ebaluatuko da, oinarri hauen bidez: <ul style="list-style-type: none"> • diskurtsoaren lokailuak egoki erabiltzea • erreferentzia mekanismoak • puntuazio-zeinuak
Hiztegia	Ebaluatuko da: <ul style="list-style-type: none"> • lexikoko elementuen erabilpen zuzen eta egokia • hizkuntza-adierazpenen erabilpen zuzen eta egokia • hiztegi aldetik nahikoa baliabide izatea testua ez errepikakorra gertatzeko
Zuzentasuna	Ohiko funtzioak betetzeko, mailari dagozkion hizkuntza-baliabideak zenbateraino menderatzen dituen ebaluatuko da. Funtzio hauek, hain zuzen: <ul style="list-style-type: none"> • perpausen osaketa: hitzen ordena eta bat-etortzea • morfologia-elementuak (aditz-jokoak, deklinabidea) egoki erabiltzea • aditz-denborak eta aspektuak zuzen erabiltzea • egitura sintagmatikoen erabilpena (aditz, izen eta adjektiboen osagarriak) • ortografia

AHOZKO ADIERAZPENA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

IRIZPIDEA	EBALUATUKO DA
Komunikatzeko egokitasuna eta eraginkortasuna	Ebaluatuko da <ul style="list-style-type: none"> • ulergarritasuna • eskatutako funtzioak zenbateraino bete diren • erregistroa hartzaileari, helburuari eta egoerari zenbateraino egokitu zaion
Lotura eta jarioa edo etorria	Ebaluatuko da <p style="text-align: center;">bakarrizketan</p> <ul style="list-style-type: none"> • informazioaren eta ideien antolaketa • lotura eta erreferentzialtasuna egoki erabiltzea (juntagailuak, izenordainak, etab.) • esan nahi dena adierazteko behar besteko erritmoan mintzatzeko gaitasuna <p style="text-align: center;">elkarrizketan</p> <ul style="list-style-type: none"> • elkar eragiteko estrategiak aplikatzea, hala nola, hitza hartzea, lankidetzan aritzea, argibideak eskatzea... • komunikazioa ez eteteko behar besteko erritmoarekin mintzatzeko gaitasuna
Lexikoa	Ebaluatuko da <ul style="list-style-type: none"> • aberastasuna eta zehaztasuna hiztegiaren eta egituren erabilpenean • orekatzeko estrategiak aplikatzea
Zuzentasuna	Ohiko funtzioak betetzeko, mailari dagozkion hizkuntza-baliabideak zenbateraino menderatzen dituen ebaluatuko da. Funtzio hauek, adibidez, <ul style="list-style-type: none"> • esaldiak eraikitzea (hitzen ordena) • amaierak (morfologia) • aditz-formak (denborak eta aspektuak)
Ahoskera / doinu:	Ebaluatuko da <ul style="list-style-type: none"> • balio fonologikoen eta haien funtzio adierazgarrien erabilpen egokia • doinua: xede-hizkuntzako estandarretara egokitzea

ARIKETA-MOTA DESBERDINEN ADIBIDE PRAKTIKOAK

Ariketa eta ataza adibideak martxoan zehar esekiko dira www.eoieuskadi.net orrian.

PROBA EGITEAREKIN ETA ADMINISTRAZIOAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT GAI

➤ Proba egin ahal izateko baldintzak

Tarteko Mailaren Ziurtagiria lortzeko Proba egin ahal izateko, nahitaezko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako batean matrikulatuta egotea dagokion hizkuntzan

➤ Deialdiak

Deialdi bakarra izango da; maiatzean edo ekainean egingo da deialdi hori.

➤ Proba ezintasunen bat duten pertsonen egokitzea

Ezintasunen bat duten ikasleen behar berezietara egoki daitezke proba. Horretarako aldeztu aurretik jakinarazi beharko du hori interesatuak dagokion eskolan.

➤ Proba berrikusteko eta erreklamatzeko eskubidea.

Antolakuntza eta funtzionamendu araudiaren arabera –bertan zehazten da zein diren ikasleen eskubide eta betebeharrak–edozein ikaslek, bai ofizialek eta bai libreek, uste badu ebaluazio-prozesua ez dela egokitu araudian ezarritakora, proba berrikusteko eskaera egin ahal izango du azterketa egin duen Hizkuntza Eskola Ofizialean, eskola bakoitzak aurreikusitako egutegia errespetatuz, betiere.

Dagokion departamentuak azalpenak emango dizkio interesatuari.

Gomendio batzuk

Probaren aurretik

- Gogoratu HEOeko agiria eta NAN, pasaporte edo nor zaren egiaztatuko duen beste agiriren bat aurkeztu beharko duzula azterketako gelan eskatutakoan.
- Ziurtatu probaren eguna, ordua eta gela eta antolatu garaiz iristeko. Gogoan izan behin proba hasitakoan ez dela inor onartuko gelan.

Proban zehar

- Behar bezala antolatu eta banatu ariketa bakoitza egiteko dagoen denbora. Denborak kalkulatu daude eta ematen du astia ariketa bakoitza egiteko. Komenigarria izaten da errepasso orokor bat ematea eta egon daitezkeen akatsak zuzentzea.
- Letra argia erabili ariketa osoan. Zuzentzat emandako erantzunak argi geratu direla ziurtatu.
- Arretaz irakurri ariketa eta zati bakoitzerako emandako argibideak.
- Garrantzitsua da lasai egotea eta proba egiteko ematen diren argibideak arretaz jarraitzea, batez ere Ahozko ulermenaren zatian.

INDARREAN DEN ARAUDIA

Tarteko Mailari dagokion Ziurtagiria lortzeko Probak legean eta administrazioan arauturik daude, ondorengo lege eta agirietan, hain zuzen:

- **2/2006 Lege Organikoa, 2006ko maiatzaren 3koa.**
- **1629/2006 Errege Dekretu, abenduaren 29koa.** Erregimen bereziko hizkuntzen irakaskuntzako curriculumaren oinarritzko ertzak finkatzen dira dekretu horren bidez. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, arautzen ditu Erregimen bereziko hizkuntzak.
- **Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Hizkuntzen Irakaskuntza Berezien artean Tarteko Mailari dagokion Kurrikulua.**
- **EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Tarteko Mailaren Ziurtagiria lortzeko Probaren Zehaztapenak.**
- **Hezkuntza Sailburuordearen Ebazpena.** Ebazpen horren bidez arautuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako deialdiak eta probak 2009. urtean.

<http://www.boe.es/boe/dias/2007/01/04/pdfs/A00465-00473.pdf>

http://cvc.cervantes.es/obref/marco/cvc_mer.pdf, 40. orria: Erreferentziazko ohiko mailak: eskala orokorrak.

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dic6/eu_2046/c6_e.html

Informazioa.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hizkuntza Eskola Ofizialen Web orria.

www.eoieuskadi.net

Hizkuntza Eskola Ofizial bakoitzaren Web orria. Web nagusitik irits daiteke horietara.

PROBA: ARIKETA ETA ATAZA EREDUAK

Euskara Tarteko Mailako proba, ariketa eta ataza ereduak honako web orri hauetan topatuko dituzu:

www.eoidonheo.org
www.eoieuskadi.net